

**2014ko URRIAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA** **13 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko urriaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Bilkura hasita	Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapirain and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2014ko irailaren 24koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko irailaren 22tik urriaren 24ra

Segidan, Alkatetzak 2014ko irailaren 22tik urriaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko irailaren 19tik urriaren 17ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko irailaren 19tik urriaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA: 2014ko 3. HIRUHILEKOA

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2014ko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

4.- ZARAUZKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEKO ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazio Publikoak objektibotasunez zaindu behar ditu guztion interesak eta eraginkortasunez jardun behar du, legeari eta zuzenbideari erabat loturik. Bestalde, 30/1992 Legeak, 35. artikuluan, zerrenda batean biltzen ditu norbanakoek administrazio publikoarekiko harremanetan dituzten eskubideak. Horrek esan nahi du Administrazioak behar diren bideak egituratu behar dituela eskubide horiek bete ahal izateko.

Azkeneko urteetan tokiko administrazioa lanean ibili da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko, administrazio hori delako herritarrengandik hurbilen dagoena.

Zerbitzuaren kalitaterako oinarrizkoa da herritarrei arreta egoki bat ematea. Gainera, arreta horrek zerbitzuan bertan aurrerabide bat ekartzen du, hobetu egiten delako erabiltzaileekiko komunikazioa eta lagundu egiten duelako haiek planteatzen dituzten gaiak eraginkortasunez konpontzen.

Zarauzko Udalak, zerbitzu publikoko erakunde modura, konpromiso bat hartu du helburu hori lortzeko: herritarrekiko kanal eta konexio modura jardungo duen modernizazio plan bat diseinatu eta betetzea maila instituzionalean, horrela lortuko baitu bere helburuak bat etortzea komunitatearekin eta haren etengabeko bilakaerarekin.

Horiek horrela, gaia hausnartu eta iritzi guztiak aztertu ondoren, Herritarren Arreta Zerbitzu oso bat sortzea proposatu da.

Zerbitzu horren araubidea ezartze aldera, ZARAUZKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEKO ORDENANTZA onartzea proposatu da; eta hori 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 4.2 artikuluan tokiko erakundeei erregelamenduak egin eta bere burua antolatzeko aitortzen dizkien eskumenak aplikatuta.

Testua aztertuta, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez horren aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea ZARAUZKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEKO ORDENANTZARI.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da.

ZARAUZKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazio Publikoak objektibotasunez zaindu behar ditu guztion interesak eta eraginkortasunez jardun behar du, legeari eta zuzenbideari erabat loturik. Bestalde, 30/1992 Legeak, 35. artikuluan, zerrenda batean biltzen ditu norbanakoek administrazio publikoarekiko harremanetan dituzten eskubideak. Horrek esan nahi du Administrazioak behar diren bideak egituratu behar dituela eskubide horiek bete ahal izateko.

Azkeneko urteetan tokiko administrazioa lanean ibili da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko, administrazio hori delako herritarrengandik hurbilen dagoena.

Aurrerabide hori, batez ere, hiri ekipamenduetan, asistentzian, hezkuntzan, kulturean, osasunean, kirolean, etab. gertatu da, baina ez horrenbeste herritarren zuzeneko arreta gisa izenda ditzakegun zerbitzuetan, eta horien artean sartzen ditugu kudeaketa eta informazio zerbitzuak.

Beste alde batetik, nabarmena da herritarrek ere gero eta eskakizun handiagoak dituztela. Horri gastu publikoa murriztu beharra gehitzen badiogu, ideia berri bat sartzen da Administrazioaren zerbitzuan: kalitatea. Izan ere, pertsoneri harrera egin eta haien eskaerak berehala konpontzen badira, erakunde guztiaren kostuak murrizten dira, eta, aldi berean, hobetu egiten da herritarrek Udalarengandik jasotzen duten irudia.

Zerbitzuaren kaliterako oinarritzkoa da herritarrei arreta egoki bat ematea. Gainera arreta horrek zerbitzuan bertan aurrerabide bat ekartzen du, hobetu egiten delako erabiltzaileekiko komunikazioa eta lagundu egiten duelako haiek planteatzen dituzten gaiak eraginkortasunez konpontzen.

Zarauzko Udalak, zerbitzu publikoko erakunde modura, konpromiso bat hartu du helburu hori lortzeko: herritarrekiko kanal eta konexio modura jardungo duen modernizazio plan bat diseinatu eta betetzea maila instituzionalean, horrela lortuko baitu bere helburuak bat etortzea komunitatearekin eta haren etengabeko bilakaerarekin.

Horiek horrela, gaia hausnartu eta iritzi guztiak aztertu ondoren, Herritarren Arreta Zerbitzu oso bat sortzea proposatu da.

Ondorioz, hauek dira Herritarren Arreta Zerbitzuaren ezaugarriak:

1. Udal bulego bat da. Beraz, ez da herritarren eskaerak jasotzeko soilik izango. Bulego horretan ahal diren arreta mota guztiak emango dira.
2. Dinamikoa izango da, aldarra, une bakoitzeko eskakizunetara egokituko dena.
3. Zerbitzu modura eratuta egongo da udal egiturari, eta bere zeregina herritarrei arreta ematea izango da, zentzu komertzialean.
4. Gehien eskatzen diren tramite erraz eta errepikakorrek osatuko dute bere jardueren karta.

Horrelako zerbitzu batek (HAZ) kudeaketa eta informazio funtzioak betetzen ditu, eta martxan jartzeak abantaila hauek ekartzen ditu:

Herritarrentzat:

- Eskaera pertsonalak bideratzea.
- Herritarrei tratu pertsonala eta indibidualizatua ematea.
- Izaera orokorreko eskaerak eta normalizatu daitezkeenak bideratzea.
- Eskaerei arinago eta azkarrago erantzutea.
- Informazio zuzen eta benetakoa ematea, eta informazioa kanalizatzea, herritarrek euren eskaerak zentralizatuta eduki ditzaten.
- Egiten diren kontsultak iragaztea. Horrela, kontsulta espezifikoko bakarrik bidaliko ditu arlo eskudunera, aurretik ordua hartuta.
- Azkenik, nabarmen hobetzea Udalak herritarren aurrean duen irudia.

Udalarentzat:

- Baliabideak arrazionalizatzea, antolakuntza horizontalak sortzen dituen ekonomien ondorioz.
- Herritarren eskakizunak konpontzeko lanean dabilen zerbitzu publikoaren irudia ematea.
- Pertsonetikiko harreman zuzen eta arduratsua izatea, zerbitzu publiko modura etengabe hobetu ahal izateko.
- Zerbitzuaren berezko "hesi-iragazki" eta "bideratzaile" kontzeptuek abantaila hauek ematen dituzte:
 - Jendea erakundeko zerbitzu guztietan joan-etorrika ez ibiltzea, eta arlo bakoitzean kudeaketari kontzentrazio eta dedikazio handiagoa eskaintzea.
 - Arloetan/zerbitzuetan jendea modu arrazionalen eta antolatuan hartu ahal izatea, aurretik ordua hartuta.
 - Udaleko kudeaketa eta administrazio zerbitzuetako produktibitatea orokorrean hobetzea.

Udal langileentzat:

- Prozesuak homogeneizatzea.
- Kudeaketa denboretan irabaztea.
- Protokoloak hasieratik amaierara arte argitzea.
- Barruko lan-sarea indartzea.
- Herritarrentzako zerbitzuaren gogobetetasunean sakontzea.

- Diziplina anitzeko talde bat egituratzea.

I. TITULUA – IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. artikulua. Herritarren Arreta Zerbitzua

Herritarren Arreta Zerbitzua udal zerbitzu bat da, zerbitzu publikorako berariazko bokazioa duena, eta bezeroari arreta emateko teknika modernoak dauzkana. Zerbitzu horretan publikoari arreta emango zaio. Zerbitzuak behar-beharrezko antolakuntza eta bitartekoak izango ditu herritarrek Udalari egiten dizkioten eskaera gehienei irtenbidea emateko.

2. artikulua. Herritarren Arreta Zerbitzuaren zereginak

Herritarren Arreta Zerbitzuaren jarduerak ondorengo funtzioen barruan sartzen dira:

- A.- Udalari eta udalerrinari buruzko informazioa emateko funtzioa.
- B.- Kudeaketa funtzioa.

3. artikulua. Ordenantzaren helburua

Hauxe da Ordenantza honen helburua:

- 1.- HAZi ematen zaizkion jarduera guztiak biltzea eta definitzea.
- 2.- Prozedurazko arau batzuk jartzea, "Ebazpen Ekintzak" izeneko espedienteak eta kudeaketak arautzeko.
- 3.- Bermatzea betetzen dela 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidearenak IV. Tituluan (Administrazio Publikoen jarduera) xedatutakoa, eta, bereziki, herritarrek Administrazioarekiko harremanetan dituzten honako eskubide hauek:
 - Informazioa eta orientazioa jasotzea.
 - Interesdunak badira, edozein unetan jakitea prozeduren tramiteak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopia lortzea.
 - Autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea.
 - Udalaren aldetik berariazko erantzuna jasotzea.
 - Prozedurari aplikatu ahal zaizkion arauetan eskatzen ez den agiririk ez aurkeztea, ezta dagoeneko administrazioaren eskutan daudenak ere.
 - Aurkeztutako agirien kopia zigilatua lortzea, kopia jatorrizko agiriarekin batera eramaten badute; eta jatorrizko agiri horiek berreskuratzea, espedienteen jaso behar ez badira.
 - Tramiteen arduraduna nor den jakitea. Espedientea ebazteko epeak ere jakitea.
 - Alegazioak eta agiriak aurkeztea prozeduraren edozein alditan, baina beti entzunaldiaren tramitearen aurretik.
 - Administrazioeko erregistroetara eta artxiboetara iristea; ez, ordea, interes publikoko arrazoiak nagusitzen direnean edo hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzen direnean.

4. artikulua. Antolakuntzaren printzipioa

Bi printzipio hauetan oinarritzen da zerbitzu honen antolakuntza berezia:

- Zerbitzu bakar batean kontzentratzen da herritarrek Udalari egiten dizkioten ohiko eskaeren arreta.
- Lanpostuak polibalenteak dira.

5. artikulua. Arlo funtzionalekiko harremana

Herritarren Arreta Zerbitzua udal egituraren barruko zerbitzu bat da, Udaleko arlo funtzionalen zerbitzura dago, bat datorrelako herritarrei arreta pertsonalizatua emateko helburu nagusiarekin.

Udaleko arlo funtzionalak izango dira HAZek garatzen dituen jarduera guztien azken erantzuleak, funtzionalki bakoitzari dagokion alorrean, ez ordea zerbitzu berri horri agintzen zaizkion eta soilik bere erantzukizunekoak diren jarduerenak.

HAZ elkarlanean arituko da Udaleko arlo funtzionalekin: HAZen instalazioetan antolatu eta egingo dituzte herritarren informazioa eta arreta behar duten ekimen eta jarduerak, hala nola, informazio orokorra, errolda berritatzekoak, hirigintza planak, bekak eta laguntzak, matrikulazioak, etab.

Arlo bakoitzak eta HAZek agiri bat sinatuko dute elkarren arteko harremana arautzeko. Agiri hori barne hitzarmen bat izango da.

6. artikulua. Harremanen barne hitzarmena

Arloaren eta HAZen arteko harremana arautzeko barne hitzarmenak kontuan izango ditu HAZek udal arlo bakoitzari emango dion zerbitzua ona izateko behar-beharrezkoak diren gai guztiak.

Hitzarmenak, gutxienez, eduki hau izango du:

- Arloko tramiteen eskuliburua.
- Arloak HAZi eman beharreko informazioa, aldizkakotasuna eta bidaltzeko bidea.
- Jarduera irizpideak.
- Prozeduren aldizkako ebaluazioa.

6.1 Arloko informazioa:

HAZek duen informazioa benetakoa eta eguneratua dela bermatzeko ezinbestekoa da informazioa bidaltzeko egitura arin, argi eta erabilgarri bat diseinatzea, eta horretarako behar-beharrezkoak da honako hauek egitea:

1. Pertsona bat jartzea, arloaren eta HAZen arteko bitartekari-lanak egiteko.
2. Konpromisoa hartzea HAZeko langileei laguntzeko.
3. Konpromisoa hartzea ondorengo aldateten edo ekintzen berri HAZi berehala emateko:
 - Berriak, jazoerak edo gertaerak.
 - Horien datak eta epeak.
 - Herritarrek tramiterako bete beharreko baldintzak.
 - Jazoeraren edo gertaeraren tramitazio egoera.
 - Jazoeraren edo gertaeraren dokumentazio grafikoa.
4. Herritarren Arreta Zerbitzuarekin erabateko inplikazioa ezartzea, hura baita Udalaren solaskide bateratua.
5. Konpromisoa hartzea sinatutako barne hitzarmen hau behar bezala betetzeko.

HAZek ere konpromiso hauek hartzen ditu arlo bakoitzarekin:

- Zerbitzuan erregistratutako agiriak egun berean bidaltzea arlo funtzional eskudun bakoitzari, lanaldia bukatzen denean.
- Arlo bakoitzak helarazitako informazioa profesionaltasun eta ardura osoz ematea, arretan eta informazioan zerbitzua eta kalitatea betetzeko.
- Arlo bakoitzari aldian-aldian jakinaraztea herritarrek zuzeneko tratu horren bidez helarazi edo iradokitako ekarpenak.

6.2 Prozeduren aldizkako ebaluazioa

“Tramiteen Eskuliburua” kudeaketa tresna bat da. Tresna horrek, hortaz, malgua izan behar du, erraz moldatzen dena herritarrei emandako zerbitzuaren ebaluaziotik sortutako behar eta eskarrietara.

Garrantzitsua da, beraz, elementu bizi eta praktikoa izatea, zuzeneko lotura duena indarreko legeekin eta garaiko gizartearekin.

Urtean behin batzar orokor bat egingo da, baina, hala ere, berehala aplikatzekoak diren unean uneko aldatetek sortutako beharrei utzi gabe.

7. artikulua. HAZen jarduerari buruzko informazioa

Aldian-aldian HAZen eskumeneko jarduerari buruzko estatistikak egingo dira, hobeto jakiteko zeintzuk diren herritarrek aurkeztutako eskaerak, kexak eta iradokizunak, aberia abisuak, ebazpen ekintzak, eta zenbat eta nolako kontsultak egin diren.

Aldian-aldian, HAZen eta Arloaren arteko harremanean izandako arazoei buruzko txostena egingo da, arazorik egon bada.

8. artikulua. Arloetako erreferenteak

Arlo bakoitzean erreferente bat jarriko da, HAZen eta Udaleko arlo funtzionalen arteko koordinazioa egokia izango dela bermatzeko eta herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko. Erreferenteak funtzio hauek izango ditu:

- A.- HAZen eta bere arloaren arteko bitartekari edo zubi-lanak egingo ditu, eta zerbitzuko langileei babes emango die, hala eskatzen diotenean.
- B.- HAZeko pertsona arduradunari arloko jarduera guztien berri emango dio, herritarrei begira eragina badaukate; hala nola, prozeduren, kexen eta erreklamazioen tramitazio egoera, iragarkiak, kanpainak eta, oro har, arloko jarduera guztiak.
- C.- Berak zaindu eta koordinatuko ditu herritarrek HAZen aurkeztutako eskaerei erantzun bat emateko egin beharreko jarduera guztiak, arlo barruan.
- D.- Sinatutako barne hitzarmenaren edukia behar den bezala betetzen dela kontrolatuko du.

9. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egiten diren eskaerak ondorengo dokumentazioa edukiko dute: batetik, 30/1992 Legeak, Administrazio Prozedura Erkidearen 70. artikuluan xedatutakoa (interesdunaren izen-abizenak eta, ordezkaria badu, bere ordezkariarenak, baita jakinarazpenak egiteko adierazitako bitartekoa eta lekua ere; egitateak, arrazoiak eta eskaera, argi eta garbi adierazita eta honakoak zehaztuta: lekua eta eguna; eskatzailearen sinadura edo bere borondatearen egiaztapena, edozein bitartekoren bidez adierazita; administrazio organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion) eta, bestetik, prozedurazko eskuliburu aplikagarriak adierazten duena.

10. artikulua. Dokumentazioa artxibatzea

Arlo bakoitzaren ardurak izango da arlo funtzional bakoitzaren eskumeneko espedientei eta kudeaketei buruz Herritarren Arreta Zerbitzuan sortutako dokumentazioa artxibatzea. Beraz, HAZek dokumentazio hori arlo bakoitzari bidaliko dio, kasu bakoitzean jarritako aldizkakotasunaren arabera.

II. TITULUA - INFORMAZIO FUNTZIOA

11. artikulua. Informazio funtzioa

HAZek lotura lanak egingo ditu herritarren eta administrazioaren artean, eta, ondorioz, informazio eta hurbilketa funtzioak beteko ditu udal bizitzan, herriaren bizitza sozialean eta beste administrazio eta zerbitzu batzuekiko harremanetan. Azken finean, informazio administrazio bitarteko egokia da herritarrek udal jardueraren berri izan dezaten eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabil ditzaten.

Oinarri-oinarrian, hauek izango dira informazio funtzioak:

- Pertsonak hartzea eta arreta ematea, behar duten orientazioa eta laguntza bisitaren lehenengo unean emateko eta, bereziki, bulegoak eta funtzionarioak non dauden esateko.
- Orientazioa eta informazioa ematea. Helburua da gai hauei buruzko argibide eta laguntza praktikoa ematea: prozedurak, tramiteak, proiektuen betebeharrak eta dokumentazioa, egin nahi diren jarduerak edo eskaerak, edo zerbitzu publiko bat jasotzeko edo prestazio baten onuradun izateko informazioa.
- Informazioa ematea prozeduren tramitazio egoerari buruz, eta adieraztea udal espedienteetara eta dokumentuetara iristeko edo horietan parte hartzeko eskubidea baliatu dezaketela, jendaurrean daudenean.

12. artikulua. Informazioa zabaltzeko bitartekoak

Herritarri behar duen informazioa emateko, une bakoitzean egokiak diren zabalkunde bitartekoak erabiliko dira, eta, batez ere, informazioa urrutitik helarazteko aukera ematen dutenak sustatuko dira, hala nola, argitalpenak, telefono-sistemak edo aurrerapen teknologikoei esker jar daitekeen beste edozein komunikabide.

Zehatz-mehatz esateko, HAZek informazioa zabaltzeko oinarritzko bide hauek edukiko ditu:

1. Aurrez aurreko arreta HAZen bertan.
2. Telefono bidezko arreta.
3. Udaleko web-gunea.
4. Udalerriko informazio panelak.
5. Udaleko eta HAZeko iragarki-taulak.
6. Argitalpenak, buletinak, bandoak.
7. Bluetooth teknologia, SMS eta beste batzuk.

13. artikulua. Iragarki-taula

Prozedurak herritarrengan oihartzun zabala daukanean, Udaleko iragarki-taulan argitaratzeaz gain, Herritarren Arreta Zerbitzutik ere zabalduko da.

I KAPITULUA.- INFORMAZIO OROKORRA

14. artikulua. Edukia

Ondorengo gaietako buruzko informazio administratiboa da:

- A. Erakunde eta unitate administratiboen identifikazioa, helburuak, eskumenak, egitura, funtzionamendua eta kokalekua.
- B. Herritarrek egin nahi dituzten proiektuei, jardueri edo eskaerei buruz xedapenek agindutako betekizun juridikoak edo teknikoak.
- C. Prozeduren tramitazioa, zerbitzu publikoak eta prestazioak, eta administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek jakin behar dituzten datuak. Osagarri modura, eman egingo da, baita, udalaz gaindikoa zerbitzu eta tramiteei buruzko informazioa, herritarrentzat interesgarria dela pentsatzen bada.
- D. Prozeduraren edo haren zati baten ezagutza, jendaurrean dagoenean. Interesdunek, gainera, nahi dituzten alegazioak egin ahalko dituzte.
- E. Artxibo administratiboetan dauden erregistroak eta dokumentuak eskuratu ahal izatea (espediente baten zati direlako), adierazpidea edo euskarri materiala edozein dela ere (grafikoa, soinua edo irudia), baldin eta espediente horiek eskaera egiten den egunerako amaituta badaude eta erregistro horiek dagoeneko ez badira operatiboak egun horretan.

15. artikulua. Informazioa ematea

Aurreko artikuluko A, B, C eta D ataletan jasotako informazioa nahitaez emango zaie herritarrei, horretarako legezko akreditaziorik eskatu beharrik gabe.

16. artikulua. Jendaurreko informazioa

Jendaurreko informazioaren berri ematen duen iragarkian zehaztu egingo da informazio hori non erakutsiko den eta alegazioak aurkezteko zein epe dauden. Epe hori gutxienez hamabost egunekoa izango da beti.

Jendaurreko informazioan, erakusgai egongo dira prozedura bera, prozeduraren zati bat edo dokumentazioa, horretarako egokitutako gela batean. Baina erakusten den informazioa ezingo da egoitza horretatik atera, eta ez da dokumentuen erreproduktzioerik emango.

17. artikulua. Administrazioerregistroetara iristea

14. artikuluko E atalean ezarritako erregistro administratiboetara iristeko eskaera idatziz egin behar da. Eskaera hori indibidualizatua izango da, eta zein dokumentu kontsultatu nahi den zehaztu beharko da. Ezingo da gai bati edo gai multzo bati buruzko eskaera orokorrik egin, hautazko izaerarekin kontuan hartzekoa ez bada behintzat.

Muga hauek izango ditu:

- Pertsonen intimitateari buruzko datuak dituzten dokumentuak pertsona horiek soilik kontsultatu ahalko dituzte. Aldiz, edozeinek kontsulta ditzake, espedienteak iraungita badaude (prozeduretan jarritako epeen arabera) eta horietatik ezin bada ondorio nabarmenik sortu.
- Ezingo dira eskuratu zuzenbidearen aplikazioko prozeduretako dokumentu izendunak.
- Ezingo dira eskuratu prozedura erkideko legediak edo izaera sektorialeko legediak berariaz adierazitako espedienteak eta bere dokumentuak.

Dokumentuak eskuratzeko eskubidea erabiltzea ukatu ahalko da interes publikoko arrazoiak badaude, babesteko duinagoak diren hirugarrenen interesak badaude edo legeak hala ezartzen badu. Kasu horietan organo eskudunak arrazoitutako ebazpena eman beharko du.

18. artikulua. Kopia lortzea

Kopia idatziz eskatu beharko dira, eta zehatz-mehatz adierazi beharko da zein dokumentu eskatzen den.

Iristeko eskubideak berekin darama kopiak edo egiaztagiriak lortzeko eskubidea ere (paperean edo euskarri digitalean). Dokumentuen kopiak bide telematikoz bidali ahalko dira, Udalak hala baimentzen badu. Aldez aurretik, ordea, legez ezarrita dauden ordainarazpenak egin beharko dira, hala badagokio.

Kanpoan egindako dokumentu batzuen kopia eskatzen bada, Udalarentzat horiek duten edo izan duten kostua ordaindu beharko da aurretiaz.

II. KAPITULUA.- INFORMAZIO PARTIKULARRA

19. artikulua. Edukia

Tramitatzen ari diren prozeduren egoerari edo edukiari buruzkoa, eta prozedura horien tramitazioaren ardura duten agintarien edo administrazio langileen identifikazioari buruzkoa.

20. artikulua. Informazio lortzeko eta eskuratzeko eskubidea

Aldez aurretik interesdun modura egiaztatuta daudenek honakoak egin ahalko dituzte:

- Edozein unetan jaso ahalko dute prozeduraren tramitazioaren egoerari buruzko informazioa.
- Espedientean dauden dokumentuak eskuratu ahalko dituzte, izendunak izan ezik. Titular ez diren pertsonak ere eskuratu ahalko dituzte dokumentu izendunak (pertsonek intimitateko beste daturik sartu gabe) baldin eta zuzenbidearen aplikazioko prozeduretan agertzen badira (baina ez zigor edo diziplinako prozeduretan), eta, edukia kontuan hartuta, herritarren eskubideak betearazteko erabil badaitezke.
- Entzunaldian parte hartu ahalko dute, alegazioak egiteko eta egoki iruditzen zaizkien dokumentuak eta justifikazioak aurkezteko.

Interesdunek edo haien ordezkariak idatziz egin beharko dituzte informazioa lortzeko edo dokumentazioa eskuratzeko eskaerak.

21. artikulua. Ordezkaritza

Jarduteko gaitasuna duten interesdunek ordezkari baten bidez jardun ahalko dute administrazio jardueretan, interesdunak ez badu berriaz kontrarik adierazten.

Jarduteko gaitasuna duen edozein pertsonak jardun ahal izango du beste pertsona baten ordezkari gisa, administrazio publikoen aurrean.

Zuzenbidean baliagarria den edozein bideren bidez frogatu ahalko da ordezkari, edo interesduna bera bertaratu eta horixe adierazten badu.

22. artikulua. Entzunaldia

Prozedura bera, horren zati bat edo dokumentazioa egongo da ikusgai erakustaldian, horretarako egokitutako gela batean. Baina erakusten den dokumentazioa ezingo da egoitza horretatik atera, eta ez da dokumentuen erreproduktioz emango. Dena den, interesdunak eskaera formala egin dezake espedientearen zati baten edo espediente osoaren kopiak eskuratzeko.

III. TITULUA - KUDEAKETA FUNTZIOA

23. artikulua. Kudeaketa funtzioa

Hauek izango dira kudeaketa funtzioak:

- Prozedura administratiboei dagokienez: espediente baten hasierako dokumentazioa jasoko da, arauz horrela xedatu denean. Tramite eta ebazpen jarduerak ere egingo dira, berehalako erantzuna eskatzen duten presazko kontuak eta gauza sinpleak direnean.
- Herritarrek ondorengo helburuekin egindako ekarpenak edo iradokizunak jasoko dira: zerbitzuen kalitatea hobetzeko, etekina areagotzeko edo gastu publikoan aurreratzeko, tramiteak errazteko edo beharrezkoak ez direnak ezabatzeke, edo gizartearen eta administrazioaren arteko harremanetan gogobetetasun maila handiagoa ekarriko duen beste edozein neurri ezartzeko.

- Funtzio administratiboen funtzionamenduan izandako atzerapenengatik, arretarik ezagatik edo beste edozein jarduera irregularrengatik herritarrek egindako kexak eta erreklamazioak jasoko dira.
- Zerbitzu publikoei dagokienez: herritarrek egindako deiak eta aberia abisuak jasoko dira.
- Herritarrei lagunduko zaie, eskaerak egiteko eskubidea erabiltzen.

24. artikulua. Leihatila bakarra

“Leihatila Bakarra” izeneko antolakuntza-arauen mende eratzen dira HAZeko kudeaketa funtzioak. Horiek horrela, zentro balioaniztun bakarra eskaintzen zaie herritarrei, Zarauzko Udalarekin izango dituzten harremanetarako.

25. artikulua. Ordezkaritza

Jarduteko gaitasuna duten interesdunek ordezkari baten bidez jardun ahalko dute jarduera administratiboetan, interesdunak ez badu berariaz kontrakorik adierazten.

Jarduteko gaitasuna duen edozein pertsonak jardun ahalko du beste pertsona baten ordezkari gisa, administrazio publikoen aurrean.

Zuzenbideko edozein bide baliagarriren bidez frogatu ahal izango da ordezkaritza, edo interesduna bera bertaratu eta horixe adierazten badu.

26. artikulua. Barne komunikazioa

Egindako kudeaketen berri emango zaie arlo funtzional guztiei astean behin, bakoitzari bere eskumenen arabera, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Herritarren Arreta Zerbitzuak bitarteko informatikoen bidez erregistratuko du horrelako zenbat gestio egin diren.

27. artikulua. Telefono bidezko kudeaketa

Herritarren eta Zarauzko Udalaren arteko harremana telefono bidez egin ahalko da, ekintza administratiboak idatziz jasotzeari eta jakinarazpenak bidaltzeari utzi gabe, hala dagokionean.

28. artikulua. Identitatea

Telefono bidezko kudeaketak tramitatzerakoan, prozesu hau jarraituko da interesdunaren identitatea ziurtatzeko:

1. Komunikatzailearen identifikazio pertsonala.
2. Nortasun Agiri Nazionala egiaztatzea, jasota badago.
3. Lehenago ere inoiz Udalarik komunikatu izan zaion beste datu bat gutxienez egiaztatzea.

Dena dela, interesdun horiei jakinarazpenik egin behar bazaie, jakinarazpenetarako berariaz jarritako helbidea erabiliko da, hau da, Udalaren erregistroetan azaltzen dena.

29. artikulua. Prozedura

Telefono bidez eskaera jaso ostean, Herritarren Arreta Zerbitzuak egin beharreko kudeaketak egingo ditu, eta, hala badagokio, eskatzailearengandik behar duen dokumentazio osoa jaso ostean, eskatutako tramitearen frogagiria bidaliko du haren helbidera.

30. artikulua. Tramiteen erregistroa telefono bidez

Telefono bidez egindako eskaera jasota geratzen dela bermatuko da, erabilitako tresna informatikoen bidez.

Alkatetzaren ebazpen bidez zehaztuko da zein harreman mota egin daitezkeen telefono bidez herritarren eta Zarauzko Udalaren artean. Aldez aurretik Ordenantza honetako I tituluan jarritako prozedura (“Harremanen barne hitzarmena”) garatuko da.

Tramiteen katalogo hori jendearentzat eskuragarri egongo da HAZen.

I. KAPITULUA.- TRAMITE EKINTZAK

31. artikulua. Deskripzioa

“Tramite Ekintzak”: herritarren eta dagokion arloaren arteko harremanerako HAZen bitartekaritza eskatzen duten tramite guztiak izango dira. Tramite horien ebazpena, baina, arlo funtzional bakoitzaren eskumena izango da. HAZen funtzioa soilik bien arteko harremanerako tresna izatea da.

32. artikulua. Tramite Ekintzen katalogoa

Alkatzaren ebazpen bidez zehaztuko da zeintzuk diren HAZek egingo dituen Tramite Ekintzak. Aldez aurretik Ordenantza honetako I tituluan jarritako prozedura (“Harremanen barne hitzarmena”) garatuko da.

33. artikulua. Sarrera erregistroa

HAZen egingo da Udalari edo bere organoei zuzenduta pertsonalki aurkezten diren idatzien Sarrera Erregistroa.

34. artikulua. Sarrera erregistroko oharra

Dokumentu bat erregistratu ostean, ohar bat idatziko zaio, ondorengo adierazteko: zein den inskripzio-eguna eta egokitu zaion hurrenkeraren zenbakia.

35. artikulua. Erregistratu beharreko dokumentuaren kontrola

Herritarren Arreta Zerbitzuko langileek egiaztatu beharko dute erregistroan aurkeztutako dokumentuak jasotzen dituela administrazio prozedura erkidea arautzen duen legediak eskatzen dituen datu guztiak.

Hala ez bada, dokumentua konpontzeko eskaera inprimatuko zaio kopia zigilatuaren atzeko aldean, sinatu edo bidali duenari, eta jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela akatsa zuzendu edo dagozkion dokumentuak aurkezteko. Ohartaraziko zaio, baita, hori egin ezean eskaera artxibatu egingo dela, besterik gabe.

36. artikulua. Erregistratutako dokumentuaren kopia

Interesdunek erregistroan aurkeztutako eskaeren, komunikazioen eta idatzien frogagiriak eskatu ahalko dituzte, zein egunetan aurkeztu dituzten frogatzeko. Frogagiritzat hartuko da aurkezpen eguna eta ordua jasota duen dokumentuaren kopia zigilatua bat.

37. artikulua. Beste administrazio batzuetara zuzendutako agirien erregistroa

Udal honetako Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira edozein organo administratibori (Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoak, foru administrazioak edo tokiko administrazioa osatzen duen edozein erakunde) herritarrek zuzendutako eskaerak, idatziak eta komunikazioak, baldin horretarako hitzarmena sinatzen bada aurrez.

38. Sailkapena eta banaketa

Agiriak erregistratu ondoren, horien organo edo entitate hartzaileei bidaliko zaizkie berehala, administrazio bakoitzarekin egindako hitzarmenean jarritako epean, eta, edonola ere, agiriak jaso eta handik hiru eguneko epean.

Bitartekorik egokienak erabilita bidaliko dira agiri horiek, hartzaileak ahalik eta lasterren jaso ditzen. Ahal den guztietan bitarteko informatikoak, elektronikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta beti ere Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak jasotzen dituen betebeharrak eta bermeak beteta.

39. artikulua

Udalak bere erregistroen eta hitzartutako zerranda bat argitaratuko du (horietara iristeko sistema eta funtzionamendu-ordutegia sartuta), eta eguneratuta edukiko du.

II. KAPITULUA.- EBAZPEN EKINTZAK

40. artikulua. Deskripzioa

HAZek irtenbidea emango die kudeaketa ohikoenei, errazenei eta bolumen handienekoei, ekintza zuzen eta autonomoen bidez, baldin horretarako bitartekoak eta eskumenak baditu.

41. artikulua. Ekintza motak

HAZek egingo dituen ekintzak ondorengo 4 ataletan sailkatzen dira, ordenantza honen ondorioetarako:

- A.- Berresteko edo egiaztatzeako ekintzak.
- B.- Eguneratzeko ekintzak.
- C.- Ezagutzazko ekintzak.
- D.- Jarduera ekintzak.

LEHENENGO ATALA - BERRESTEKO EDO EGIAZTATZEKO EBAZPEN EKINTZAK

42. artikulua. Deskripzioa

“Berresteko edo Egiaztatzeako Ekintzak” kudeaketa errazak dira, herritarren eskaerei erantzuteko izaten dira, eta erregistro administratiboetan lehendik dagoena berrestea edo egiaztatzea baino ez dute eskatzen. HAZek bitartekoak eta eskumenak izango ditu horiek modu zuzenean eta autonomoan egiteko.

43. artikulua. Erregistroak

Zarauzko Udaleko erregistro administratiboak paperezko euskarrian, informatikoan edo beste edozeinetan jasota daude, eta eskubideak, betebeharrak, ezaugarriak edo lehendik dauden egoerak azkar eta ziur jakiteko balio dute, Udalak bere ahalmenak modu eraginkorragoan balia ditzan.

44. artikulua. Erregistroetara iristea

Interesdunek eskaeraren egunean indarrean dauden erregistro administratiboetara jo ahalko dute, interesdun direla frogatu ostean.

Iristeko eskubideak berekin darama Udalak baimendutako bolantea eskuratzeko eskubidea ere. Aldez aurretik, ordea, legez ezarrita dauden ordainarazpenak egin beharko dira, hala badagokio.

45. artikulua. Bolantearen definizioa eta eraginak

Bolantea deitzen zaio erregistro administratiboetan jasota dagoen informazio zehatza idazketaren bidez egiaztatzen edo berresten duen agiriari. Udal langileek egiten dituzte bolanteak.

Bolante horiek ondorio informatiboak baino ez dituzte izango.

46. artikulua. Bolanteak ematea

Herritarren Arreta Zerbitzuko langileek emango dituzte, eskaera egin eta berehala. Eskaera ahoz egingo da.

47. artikulua. Bolanteen erregistroa

Ez da beharrezkoa izango bolante horiek eman izana Erregistro Orokorrean jasotzea, izan ere, berehalakoak dira eta informazioa lehenagotik jasota dago, ez dute Administrazioaren aldetik beste jarduerarik eskatzen, eta kudeaketa arintzeko baino ez dira.

BIGARREN ATALA - EGUNERATZEKO EBAZPEN EKINTZAK

48. artikulua. Deskripzioa

“Eguneratzeko Ekintzak”: erregistro administratibo operatiboak aldatzeko ekintzak dira. HAZek bitartekoak eta eskumenak izango ditu horiek modu zuzenean eta autonomoan egiteko.

49. artikulua. Sarrera - Irteera erregistroa

Zarauzko Udaleko Alkatezari zuzendutako idatzi bidez eskatuko dute herritarrek aldaketa. Idatziari sarrerako erregistroa emango zaio.

Era horretako tramiteek, berez duten izaerarengatik, ez dute berariazko ebazpenik eskatzen.

50. artikulua. Eguneratzeko ebazpen ekintzen katalogoa

Alkatetzaren ebazpen bidez zehaztuko da zeintzuk diren HAZek egingo dituen Eguneratze Ekintzak. Aldez aurretik Ordenantza honetako I tituluari jarritako prozedura ("Harremanen barne hitzarmena") garatuko da.

Tramiteen katalogo hori jendearentzat eskuragarri egongo da HAZen

HIRUGARREN ATALA - EZAGUTZAZKO EBAZPEN EKINTZAK

51. artikulua. Deskripzioa

"Ezagutzazko Ekintza": Ekintza honen bidez herritarrak aitortutako jardueraren jakitun geratzen da Udala, dagozkion ondorioetarako. Ekintzak bolumen handikoak izaten dira, izaera arautukoak eta errepikakorrak.

52. artikulua. Ezagutzazko agiriaren definizioa eta eragina

HAZeko langileek agiri bat egingo dute. Agirian bi gauza jasoko dira: lehenengo zatian, herritarraren adierazpena, eta, jarraian, administrazioa horren jakitun geratu dela.

Ezagutzazko Ekintzak ahalmena ematen dio interesdunari adierazitako eta kontu-hartutako jarduera egiteko. Dena den Udalak ahalmena izango du jarduera hori berrikusteko eta, zuzenbidearen aurka badoa, ez baimentzeko.

53. artikulua. Ezagutzazko agiria ematea

Herritarren Arreta Zerbitzuko langileek emango dituzte Ezagutzazko Ekintzaren egiaztagiriak, eskaera egin eta berehala. Hori bai, aldez aurretik legez jarrita dauden ordainarazpenak egingo dira.

54. artikulua. Sarrera - Irteera erregistroa

Zarauzko Udaleko Alkatetzari zuzendutako idatzi bidez egingo dute interesdunek komunikazioa. Idatziari sarrerako erregistroa emango zaio.

Era horretako tramiteek, berez duten izaerarengatik, ez dute berriazko ebazpenik eskatzen.

55. artikulua. Ezagutzazko ebazpen ekintzen katalogoa

Alkatetzaren ebazpen bidez zehaztuko da zeintzuk diren HAZek egingo dituen Ezagutzazko Ekintzak. Aldez aurretik Ordenantza honetako I tituluari jarritako prozedura ("Harremanen barne hitzarmena") garatuko da.

Tramiteen katalogo hori jendearentzat eskuragarri egongo da HAZen

LAUGARREN ATALA - JARDUERAKO EBAZPEN EKINTZAK

LEHENENGO AZPIATALA - KOMUNIKAZIOAK JASOTZEA ETA TRAMITATZEA

56. artikulua. Komunikazioaren definizioa

Ordenantza honen ondorioetarako, komunikaziotzat hartzen dira herritarrek, laguntzeko borondatearekin, ahoz edo idatziz, udal zerbitzuen funtzionamenduen gainean, iradokizunen bat, kexaren bat, arazoren bat edo esker onen bat adierazten dutenean, baldin eta komunikazio horrek ez baditu betetzen administrazio prozedurako legedian eskaerarako aurreikusitako betekizunak.

57. artikulua. Komunikazioen erregistro-liburua

Herritarren Arreta Zerbitzuan komunikazioen erregistro-liburu bat egongo da. Liburu horretan azaldu eta proposatuko da udal zerbitzuak berritzeko edo hobetzeko egokitzat jotzen den guztia.

58. artikulua. Aurkezpena

Komunikazioen erregistro-liburuan jasoko dira honela jasotako komunikazioak:

- Aurrez aurre, horretarako egindako inprimakiaren bidez.
- Telefonoz.
- Legeak ezarritako beste edozein bitartekoren bidez.

Herritarren Arreta Zerbitzuko langileek lagundu egingo diote jendeari bere komunikazioa idazten eta jasotzen.

59. artikulua. Tratamendua

Herritarren Arreta Zerbitzuan sailkatu eta prozesatuko dira komunikazioak, eta ondoren berehala helaraziko dute bakoitza bere arlo edo zerbitzura.

Arlo edo zerbitzu eskudunak komunikazioak jaso eta, hala behar izanez gero, komunikazio-egileari eskatu beharreko argibideak eskatu ostean, gehienez ere 5 egun balioduneko epea edukiko du egindako edo egingo dituen jardueren berri Herritarren Arreta Zerbitzuari emateko eta HAZek berehala komunikazio-egileari jakinarazteko.

60. artikulua. Erantzuna

Herritarren Arreta Zerbitzuan kexa, iradokizuna, aberia abisua edo esker ona jasotzen denetik 20 eguneko epea egongo da egindako jardueren berri interesdunari emateko, dagokion arloak edo zerbitzuak adierazitako moduan.

Erantzuteko epea igaro eta interesdunak ez badu Udalaren erantzunik jaso, HAZera jo ahalko du, hau da, komunikazioa aurkeztu zuen lekura, jakiteko zergatik ez duen erantzunik jaso.

61. artikulua. Jarduerak eta jarraipena

Herritarren Arreta Zerbitzuak kontrolatuko ditu arlo funtzional bakoitzaren komunikazioak.

Aldian-aldian, aurkeztu diren kexen, iradokizunen, ekimenen, eskaeren, esker onen eta abisuen zerrenda bat bidaliko zaie Udaleko arduradun politikoei, baita emandako erantzunak eta kasu bakoitzean hartutako neurriak zein izan diren ere, haiek une bakoitzerako ezarritako jarraibideen eta aginduen arabera.

62. artikulua. Kexen ondorioak

Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera aurkeztutako kexek ez dute, kasu bakar batean ere, administrazioko errekursoaren kalifikaziorik izango, eta kexa horiek aurkezteak ez ditu indarreko araubidean ezarritako epeak geldiaraziko.

Kexa horiek ez dituzte baldintzatzen, inolaz ere, interesdun gisa agertzen direnek prozedura bakoitzaren araubidearen arabera egin ditzaketen gainerako ekintzak edo eskubideak.

BIGARREN AZPIATALA – DOKUMENTUAK KONPULTSATZEA

63. artikulua. Definizioa

Dokumentuen konpultsak jatorrizko dokumentu baten kopia egiaztatzen du, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Konpultsa soilik Udal Erregistroan aurkeztutako dokumentuekin egingo da, eta beti jatorrizkoarekin alderatu ondoren. Agiri horiek Udalean bertan tramitatzeko izan daitezke edo baita beste administrazio eskudun batzuetara bidaltzeko ere, baldin eta beste administrazio horiekin "leihatila bakarraren" hitzarmena sinatuta badu. Udaletik datozen dokumentuak edo Udaleko bulegoetan jasota daudenak ere konpultsatu daitezke.

64. artikulua. Agiria egitea

Dokumentuen konpultsak HAZen egingo dira, unean bertan, baina aldeztu aurretik Udalbatzako idazkari nagusiak eskuordetzea eman ondoren. Konpultsa egiteko, Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaindu beharko da aurretik, baldin halakorik jarrita badago.

Baliteke unean bertan zerbitzua EZ ematea, konpultsatu beharreko kopiak asko badira.

Konpultsak egiteko, jatorrizko dokumentuak baino ez ditu eraman beharko interesdunak. Fotokopiak Herritarren Arreta Zerbitzuan egingo dira.

HIRUGARREN AZPIATALA – ORDUA ESKATZEA

65. artikulua. Ordua eskatzea

Udalaren oinarritzko helburua honako hau izango da: Zarauzko Udalarekiko harremanetan herritarrei ahalik eta aholkularitza eta informazio zabalena ematea, HAZen bitartez.

Hala ere, gerta daiteke eskaera batzuk udal teknikarien (espezialistak) edo Udalbatzako kideren baten arreta behar izatea, bai zailtasunagatik, bai berezitasunagatik, bai duten izaeragatik. Halakoetan, HAZek administratuko ditu partzialki haien agendak, eta bilera egiteko eguna, ordua eta lekua emango ditu.

LAUGARREN AZPIATALA – ARGITALPENAK ETA PLANOAK SALTZEA

66. artikulua. Deskripzioa

Udalak argitaratutako argitalpen eta plano guztiak egongo dira HAZen, behar dituenari eman ahal izateko. Hori bai, aldez aurretik tarifa ordainduko da, halakorik jarrita badago.

SEIGARREN AZPIATALA- TELEFONO-DEIAK IASOTZEA ETA BANATZEA

67. artikulua. Deskripzioa

Herritarrek, Udalarekiko harremanetan, bertako langileren batekin harremanetan jarri behar badute, lehenengo eta behin HAZeko langileek egingo diote harrera, bertan betetzen delako, hasiera batean behintzat, arreta funtzioa. HAZen emango zaio behar duen informazioa, edo behar duen gestioa egingo zaio. Azken funtzioa deia ahalik eta azkarren dagokion pertsonari pasatzea izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.- Zarauzko Udalak jarriko ditu Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) behar diren langileak, lanpostuak hornitzeko indarrean dagoen legerian xedatuta dauden prozesuen bitartez. Era berean, Udaleko lanpostu-zerrendan egin beharreko egokitzapen guztiak ere egingo dira. Edozein kasutan, langile horiek prestakuntza zehatza eta egokia jasoko dute, ordenantza honetan bildutako funtzioak betetzeko eta zerbitzua behar den moduan jartzeko.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.- Ordenantza hau indarrean egongo da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 65.2 artikuluan xedatutako hamabost eguneko epea igaro ostean, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Bigarrena.- Hala ere, Zarauzko Udala egiten ari den barne antolakuntzako prozesua amaitzen denean ezarriko da ordenantza honen aplikazio eraginkor osoa, orduan egongo direlako prest Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) erabat eta eraginkortasunez jartzeko behar diren bitarteko pertsonalak, materialak eta teknologikoak.

5.- “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN BARNE ARAUTEGIA. HASIERAKO ONESPENA

“IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN BARNE ARAUTEGIA onartzeko proposamena aurkeztu du Kultura Departamentuak.

Bestalde, 2014ko abuztuaren 13ko proposamenaren alderdi juridikoei buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, eta 2014ko urriaren 9an egindako bileran Kultura Ereduaren informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN BARNE ARAUTEGIARI.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun naturaleko epean, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion oharrak aurkeztu ahal izan ditzan. Erakustaldiaren izapidea Udaleko iragarki-taulan eta web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinaraziko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik aurkeztu ezean, erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

“IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN BARNE ARAUTEGIA

AURKIBIDEA

1. XEDAPEN OROKORRAK
2. ESKOLAKO AGINTE-ORGANOAK
 - 2.1 Zuzendaritza Batzordea
 - 2.2 Zuzendaritza Taldea
 - 2.3 Irakasleen Klaustroa
 - 2.4 Eskola Kontseilua
3. ESKOLAREN PROIEKTUA
 - 3.1 Eskolaren hezkuntza proiektua
 - 3.2 Eskolaren proiektu curricularrak
 - 3.3 Barne arautegia
 - 3.3.1 Irakasleak
 - 3.3.2 Ikasleak
 - 3.3.3 *Ikasleen diziplina-araubidea eta zigor-araubidea*
 - 3.4 Gelak erabiltzeko arauak
 - 3.5 Urteko memoria
4. ERREGIMEN EKONOMIKOA

1.- XEDAPEN OROKORRAK

1.1.- Musika irakatsi eta ikasteko zentro bat da Zarauzko “Imanol Urbietan” Udal Musika Eskola, eta Zarauzko udalerrian musika-jarduera guztiak garatzen laguntzea da bere helburu nagusia. Horrenbestez, musikan prestakuntza praktikoa eskaintzen die adin guztietako zaletuei, eta, aldi berean, musika-ikasketa profesionalerako orientabidea eta prestakuntza ere ematen die musikarako zaletasun eta gaitasun berezia daukaten guztiei. Eta horretarako, oso kontuan izaten du zenbateko eskaera dagoen, zentroak zein ezaugarri dituen eta aurrekontuan zenbat diru dagoen.

1.2.- Honako hauek dira Musika Eskolaren helburuak:

- a) Haurtzarotik musika ezagutu eta estimatzeko ekintzak sustatu, eta haurrak txiki-txikitatik musika ikasten hasia.
- b) Arautu gabeko musika-irakaskuntza eskaini, erabat praktikoa, batez ere, taldeko musika egiteko xedez.
- c) Ikaslearen partaidetza aktiboa bultzatu, bai bakar-lanean bai talde-lanean, eta partaidetza hori gorpuztu egiten den guneari ere bultzada bat eman, hau da, eskola eta eremu sozialaren arteko interakzioari. Izan ere, gizartean inolako eraginik izan gabe, norberarengan hasi eta norberarengan bukatzen den ikasketak galdu egiten du, hein handi batean, bere izateko arrazoia.
- d) Musika-tresnak jotzen ikasteko musikako ikasgai osagarriak eskaini.
- e) Ekitaldi publikoak antolatu eta afizionatu mailako musika-jardueretan parte hartu.
- f) Musika-jardueren artean dauden aukera desberdinak eskaini: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradizioan oinarritutakoa, herrikoa, joera desberdinetakoa, rocka, ...
- g) Ikasleak talentu eta zaletasun berezia baditu, irakaskuntza profesionalera bideratu eta, hala dagokionean, irakaskuntza-maila horretara iristeko behar duen prestakuntza eman.
- h) Herriko eta eskualdeko musika-tradizioak bildu, sistematizatu eta zabaldu, bertako kultura-nortasuna ardatz bilakatuta.
- i) Irakaskuntzako tekniken hobekuntza bultzatu, irakasleek etengabe lan eginez, gehiago ikasteko eta egunean egoteko.

- j) Herriko musika-kulturan positiboki eragin, ez bakarrik ikasleak prestatuz, baita gizartean musika zuzenean zabalduz ere, horretarako, bere musika taldeek ekitaldi publikoak emanez etengabe.
- k) Harremanetan egon Euskadi, Espainia eta Europako beste musika-eskola batzuekin, irakaskuntza metodologiak, ikasleak eta irakasleak elkarren artean trukatzeko, jarduera batzuk batera egiteko, antolaketa-ereduen berri elkarri emateko,...

1.3.- Zarauzko Udala da “Imanol Urbietia” Musika Eskolaren titularra eta zerbitzu horren lizitazioaren lehiaketa publikoa egin du. Zerbitzu hori ematen duen enpresak kudeatuko du eskola eta kontratatuko ditu irakasleak, Zarauzko Udalarekin sinatutako kontratuaren arabera.

1.4.- Udalaren babespean, arautegi honetan araututakoaren arabera jardungo du “Imanol Urbietia” Musika Eskolak. Udalaren lana izango da Arautegian jasotako helburuak lor daitezen arduratzea.

2. ESKOLAKO AGINTE-ORGANOAK

Zuzendaritza Batzordea, Zuzendaritza Taldea, Irakasleen Klaustroa eta Eskola Kontseilua arduratuko dira “Imanol Urbietia” Musika Eskolaren gobernamentu eta administrazioaz.

2.1.- ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zuzendaritza Batzordeak bere gain hartuko ditu “Imanol Urbietia” Musika Eskolaren gobernamentu eta goi-mailako kudeaketa, eta kide hauek osatuta egongo da:

- Presidentea: Zarauzko alkatea edo, hala badagokio, bere ordezkari izendatzen duen zinegotzia.
- Batzordekidea: zerbitzua kudeatzen duen enpresak bere ordezkari izendatzen duen pertsona.
- “Imanol Urbietia” Musika Eskolako zuzendaria, hitzarekin baina botorik gabe.
- Idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Zuzendaritza Batzordeari eskumen hauek dagozkio:

- a) Jarduteko plan orokorrak eta aldizkako programak onartu. Horiek guztiak Udalak berretsi beharko ditu ondoren.
- b) “Imanol Urbietia” Musika Eskolaren izenean jardun, bere jarduera-eremuaren barruan.
- c) Administrazio, gobernu eta epaitegietako agintarien aurrean era guztietako erreklamazio eta ekintzak egin, bere jarduera-eremuaren barruan.
- d) Era guztietako ekintza eta kontratuak egin eta baimendu, bere jarduera-eremuaren barruan.
- e) Urtean zehar burututako jarduera eta kudeaketan memoria onartu, Udalbatzak berretsi dezan.
- f) Bere aurrekontua proposatu, Udalaren Aurrekontu Orokorretan sartua izan dadin.

Zuzendaritza Batzordea urtean gutxienez bi aldiz elkartuko da eta Presidentetzak beharrezko jotzen duen guztietan, edo bere kideen herenak idatziz eskatzen duenean.

Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoaren bidez hartuko dira erabakiak, eta berdinketa gertatzen den kasuetan, berriz ere egingo da bozketak; bigarren aldia ere berdinketa gertatzen bada, Presidentetzak erabakiko du kalitateko botoaren bitartez.

“Imanol Urbietia” Musika Eskolako Presidentetzak eta Zuzendaritzak sinatu eta behar bezala artxibatuko dira aktak, eta hurrengo bileran onartuko dira.

2.2.- ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaria

Musika Eskolaren ordezkari eta arduradun nagusia da zuzendaria.

Idazkariak ordezkaturiko du zuzendaria, ondorio guztiekin, bere lanpostua bete gabe dagoenean, kanpoan denean edo gaixo dagoenean.

Zuzendariak Musika Eskola zuzenduko du eta behar diren erabakiak hartuko ditu, eskolako araudian oinarrituta.

Zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitateak izendatuko du kargurako eta kenduko du kargutik. Kargu horretarako profesional bat izendatu beharko du, goi mailako ikasketetan tituluduna edo Eusko Jaurlaritzako musikarako habilitazioa duena. Izendatua izan baino lehen, ezinbestekoa izango da Zarauzko Udalean dagokion batzordearen onespina jasotzea.

Zuzendaritzaren eginkizunak:

- a) Eskolako legeak bete eta betearazi.
- b) Eskolako aginte-organoen bileretarako deialdiak egin eta bilerak zuzendu.
- c) Eskolako ekintzak bideratu eta zuzendu.
- d) Eskolako ziurtagiri eta dokumentu ofizialak sinatu.
- e) Ikasketa-planak onartu.
- f) Eskolako ekintzei buruzko informazioa eman zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitateari.
- g) Aginte-organoean hartutako erabakiak bete.
- h) Beste musika-eskola eta ikastetxe batzuekin hartu-emanak izan.
- i) Jarritako irizpide pedagogikoak betetzen direla bermatu.
- j) Zerbitzuak eta jarduera osagarriak programatu eta koordinatu.
- k) Eskolako materiala zaindu eta erabili ahal izateko baimena eman.
- l) Musika Jardueren Urteko Planaren barruan sartzen diren hezkuntza-jarduerak koordinatu, eta irakasle zein ikasleek betetzen dituztela bermatu.
- m) Halaber, eskatzen zaizkion bestelako eginkizunak bete; eginkizun horiek lanpostua burutzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera izango dira beti.

Idazkaria

Zuzendariak hala proposatuta, zerbitzuaren kudeaketaren enpresa edo entitate kontratatzaileak Eskolako langileetako bat izendatuko du idazkari edo, hala badagokio, kargua utzarazi ere egingo dio.

Idazkariaren eginkizunak:

- a) Zuzendaritza Batzordeko kide izan.
- b) Zuzendaritza Taldearen, Irakasleen Klaustroaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretako gai-zerrendan sartuko diren gaiak prestatu.
- c) Eskolako bilera, erabaki eta akta guztiak egiaztatu, Zuzendaritzaren oniritziarekin.

2.3.- IRAKASLEEN KLAUSTROA

Musika Eskolako irakasle guztien artean osatutako organoa da Irakasleen Klaustroa. Era berean, aztertuko den gaia zein den, aholkularitza-lanak egiten dituztenak edo laguntzaileak ere etorri ahalko dira bilera horietara, zuzendaritzak gonbidatzen baditu .

Irakasleen Klaustroaren eginkizunak:

- Irakasleek ebaluazioak egin ahal izateko irizpideak zehaztu eta koordinatu.
- Ikasleei orientabidea eta tutoretza eskaintzeko arauak ezarri.
- Eskolan esperimentazioa edo ikerkuntza pedagogikoa sustatzeko proiektuak bultzatu.
- Programazio orokorra prestatzeko proposamenak egin Zuzendaritzari.
- Jasotako proposamen, eskakizun, hobekuntza, kezka, txosten eta abarren berri eman Zuzendaritzari.

Irakasleen Klaustroak ohiko bilerak eta ezohikoak egingo ditu. Azken horiek, gainera, premia-zerrendak ere izan daitezke.

Ohiko bilerak gutxienez hiru hilean behin egingo dira, nahitaez. Ezohiko bilerak, berriz, Zuzendaritzak berak edo gutxienez klaustrokideen laurden batek deitutakoan egingo dira. Azken kasu horretan, deialdia gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko da.

Klaustrokideek nahitaez joan behar dute Klaustroaren bileretara; nolana ere, Zuzendaritzak ez joateko baimena eman ahalko die.

Akordioak bozketa publikoaren bidez onartuko dira, klaustrokideren batek bozketa sekretua egitea eskatzen duenean izan ezik. Botoa aldekoa, kontrakoa edo abstentzioa izan daiteke.

Arautegi honetan berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa dagoenean, errepikatu egingo da bozketa, eta berdinketa mantendu egiten bada, zuzendariaren kalitateko botoak erabakiko du auzia.

Klaustrokideek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Zuzendariak antolatu eta moderatuko ditu debateak.

Eztabaidatutako gaiak klaustroaren zereginetatik kanpo daudenean, kontsultatu egin beharko dira, baina horiei buruzko bozketak klaustrokideen iritzirik izango dira, besterik ez.

Hartutako erabakiaren aurkako botoa ematen badu klaustrokideren batek, eskubidea izango du aurkako boto hori eta horren zergatia aktak jasota gera dadin eskatzeko.

Quoruma egoteko beharrezkoa izango da:

- Lehen deialdian, klaustroa osatzen duten irakasleen erdia gehi bat egotea.
- Bigarren deialdian, nahikoa izango da hiru irakasle egotea, eta horietako bat zuzendaria izan daiteke.

Ohiko bileretan galdera-eskeak izango dira gai-zerrendako azken puntua.

Ezin izango da gai-zerrendan agertzen ez den gai bati buruzko erabakirik hartu. Salbuespena izango da, bileran bertan, klaustrokideen gehiengo osoak gairen bat presakotzat jotzea.

2.4.- ESKOLA KONTSEILUA

Eskola Kontseilua honako hauek osatuko dute:

- Titularra: Zarauzko alkatea edo, hala badagokio, bere ordezkari izendatzen duen zinegotzia, Kontseiluaren presidente modura.
- Eskolako zuzendaria, Kontseiluaren presidente modura, titularra ez dagoenean.
- Idazkaria.
- Gurasoen ordezkari bat eta ordezkari bat.
- Adinez nagusi diren ikasleen ordezkari bat eta ordezkari bat.
- Irakasleen bi ordezkari.

Eskola Kontseiluak urtean gutxienez 3 bilera egingo ditu, eta horietako 2 ikasturtearen hasieran eta bukaeran egin beharko dira nahitaez. Bilera gehiago egin ahalko ditu Zuzendaritzak edota kontseilukideen heren batek hala eskatzen badute.

Bileretarako deialdia zuzendariak egingo du gutxienez 48 ordu lehenago. Deialdiarekin batera eguneko gai-zerrenda bidaliko da. Eskolako funtzionamendua hobetzeko balio dezakeen edozein puntu gai-zerrendan sartzeko eskatu ahal izango du Kontseiluko edozein kidek.

Kontseiluan quoruma egoteko lehenengo deialdian gutxienez kideen erdia agertu beharko da. Bigarren deialdian nahikoa izango da gutxienez hiru kide agertzea. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da presidentetza eta idazkaritzako karguak betetzen dituztenak bertan egotea.

Eskola Kontseiluaren erabakiak baliozkoak izateko, beharrezkoa izango da bilerara etorri direnen gehiengo soilaren aldeko botoa.

Ezingo da gai-zerrendan agertzen ez den gai baten inguruko erabakirik hartu. Salbuespena izango da Eskola Kontseiluko gehiengo osoak premiazkotzat jotzea.

Zuzendariak egingo ditu presidente lanak eta bilerak bideratuko ditu. Idazkariak aktak egingo ditu, eta bertan adieraziko ditu lekua, ordua eta eguneko gai-zerrendako puntuak, bozketa egin den modua eta emaitzak, eta erabakitako puntuak zein izan diren. Aktak idazkariak izenpetuko ditu, presidentetzaren onespenezekin, eta hurrengo bileran onartuko dira behin betiko.

Bozketan berdinketa egonez gero, errepikatu egingo da, eta berriz ere berdinketa gertatuz gero, Eskolako Zuzendaritzaren kalitateko botoak erabakiko du.

Eskola Kontseiluko kideen agintaldiak, Zuzendaritzarenak izan ezik, izendatzen dituztenetik aurrera hiru urteko iraupena izango du.

Eskola Kontseiluko kideek kargua utzi beharko dute, ordezkatzeko duten taldeko partaide izateari uzten badiote edota ordezkatzeko duen taldeak hala erabakitzen badu.

Kontseilukideren batek kontseilua uzten badu, ordezkari bat jarriko da bere lekuan.

3 urteko epea igarotakoan karguak berritu egin beharko dira.

Eskola Kontseiluaren eginkizunak

- a) Hezkuntzaren aldetik, Eskolako ekintza guztiek bete beharko dituzten printzipio eta helburuak definitu.

- b) Zentroan egiten diren ekintzei buruzko programazio orokorren berri eman.
- c) Indarrean dagoen legedia beteko dela bermatu.
- d) Zuzendaritzak onartutako jarduera eta zerbitzuak sustatu, eta behar den bezala burutu daitezzen arduratu.
- e) Zuzendariari lagundu eta aholkatu bere eskumeneko gaietan.
- f) Zentroari eta bertako bizitza akademikoari buruzko informazioa eman Udalari, hala badagokio, dagozkion proposamenak ere eginez.

3.- ESKOLAREN PROIEKTUA

3.1.- ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Eskolaren izaera zehazten duen kudeaketa-tresna da, eta bat dator eskolaren testuinguruarekin. Bertan, Eskolak lortu nahi dituen helburu nagusiak eta antolaketaren egitura zehazten dira. Proiektu honetan, herrian momentu honetan dauden edo aurrerago egon daitezkeen taldeak mantentzeko beharrezko diren instrumentu guztien irakaskuntza bermatuko da.

“Imanol Urbietia” Musika Eskolan emango diren prestakuntza eta ezagutza mailak honakoak dira:

1. MAILA

Kurtsoak	Ikasgaiak	Saioak	Denbora
1.1.- 4 urte	Musika Tailerra	2	30´
1.2.- 5 urte	Musika Tailerra	2	30´
1.3.- 6 urte	Musika Tailerra	2	45´

2. MAILA

Kurtsoak	Ikasgaiak	Saioak	Denbora
7 urte	Musika Mintzaira	2	45´
2.1.- 8 urte	Musika Mintzaira Musika tresna	2 1	45´ 30´
2.2.- 9 urte	Musika Mintzaira Musika tresna	2 1	45´ 30´
2.3.- 10 urte	Musika Mintzaira Musika tresna	2 1	45´ 30´
2.4.- 11 urte	Musika Mintzaira Musika tresna	2 1	45´ 30´
Helduak	Musika Mintzaira Musikoterapia	1 1	60´ 30´

3. MAILA

	Ikasgaiak	Saioak	Denbora
3.1.-	Musika Tresna eta/edo Talde Instrumentala	1/1	30´
3.2.-	Musika Tresna eta/edo Talde Instrumentala	1/1	30´
3.3.-	Musika Tresna eta/edo Talde Instrumentala	1/1	30´
3.4.-	Musika Tresna eta/edo Talde Instrumentala	1/1	30´

“Imanol Urbietia” Musika Eskolan ikasketa hauek emango dira:

- Irakaskuntza nagusia: irakaskuntza nagusizat hartzen dira, instrumentuen arloan, instrumentuak ikasteko klaseak, eta kantuaren arloan, berriz, musika-mintzaira eta/edo koru-kantua ikasteko klaseak.
- Talde irakaskuntzak: Talde instrumentalak eta/edo ganberakoak.
- Irakaskuntza osagarriak: Aukera izango da ikasleari bestelako irakaskuntza osagarria emateko, puntualki nahiz etengabe, orokorrean musika hobeto ikasten laguntzeko.

Instrumentu edo kantu bakoitzaren irakaskuntza nagusia taldeka antolatuko da, eta taldekideen interes, gaitasun eta ikasketa erritmoaren arabera antolatuko dira taldeak.

Zailtasunak baldin badaude interes, maila eta gaitasun antzekoak dituzten taldeak antolatzeko, banaka eman ahal izango dira klaseak.

Ikasle edo talde bakoitzaren dedikazio-denborak honakoak izango dira:

- Musika Mintzaira: 1,5 ordu astean
- Instrumentua ikasteko klasea: 30 minutu astean
- Instrumentu-taldea: Ordu 1 astean
- Korua: Ordu 1 astean

Ikasleek Eskolan egin behar dituzten praktika guztiak egiteko ezinbestekoa izango da irakasleren bat bertan egotea, edo dagokion gaiko irakasleren baten edo Zentroko administrazioaren baimena izatea.

Ikasturtearen hasieratik iragarki-taulan jarrita egongo da eskola-egutegia.

3.2.- ESKOLAREN PROIEKTU CURRICULARRAK

Proiektu curricularra ikasleek erabiltzen duten tresna bat da, eta beren curriculuma osatzen duten alderdiak zehazten ditu: helburuak, sekuentziarioa, ebaluazio-irizpideak, eta abar. Eskolaren Hezkuntza Proiektuan zehaztutakoa hartzen dute kontuan proiektu curricularrek.

Urtero irakasle bakoitzak prestatuko du ikasturte horretarako ikasgaien programazioa, eta baita dagozkion ebaluazio-irizpideak ere.

Dokumentu horiek Eskolako iragarki-taulan jarriko dira.

Ikasturtean zehar hiru ebaluazio egingo dira, eta ebaluazio bakoitzaren bukaeran, hezkuntza-prozesuan egindako aurrerapenaren berri emango zaio idatziz ikasleari.

3.3.- BARNE ARAUTEGIA

Zentroko hezkuntza-komunitatearen barruko harremanak arautzen ditu, eta bertako zigor-araubidea ere ezartzen du.

3.3.1.- IRAKASLEAK

Irakasleei dagokie:

- a) Klaustroko kide izan eta klaustroko bileretara joatea.
- b) Beren kontratuetako ordutegia betetzea; kontratuetan bertan agertzen dira eskola-orduak eta eskolarik gabeko orduak.
- c) Eskola barruan ordena eta diziplina mantentzea, klaseak aprobetxatzea, eta klaseetan izandako ezohiko gertakari guztien berri ematea zuzendariari.
- d) Hiru hilez behin parte bat pasatzea Idazkaritzari, bertan adieraziz, ikasleen gaitasunak eta erakutsi duten interesa, klaseen aprobetxamendua, interesgarria iruditzen zaion gainerako informazio guztia, eta baita asistentzia-faltak ere. Ebaluazio Batzordeak aztertu ondoren, ikasleari emango zaio txosten hori.
- e) Ebaluatu eta aktak izenpetu.
- f) Bat etorri beharko dira irakasleen opor garaia eta, eskola-ordutegiaren arabera, zentroak ikasleentzat erabakitzen duena.
- g) Baldin eta ikasleren batek eskolan baja hartzen badu, berari legokiokeen klase-ordua beste ikasle bati irakasteko erabiliko da, maila hobetzen laguntzeko edo antzeko arrazoi pedagogikoren baterako. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean Idazkaritzari jakinarazi beharko zaio, zertan edo zein helbururekin erabili den denbora hori.
- h) Norbere gaietarako baimen batengatik irakasleren batek ez badu klaseren bat ematen, hilabete baino lehenago errekuperatu beharko du klase hori.
- i) Musika Eskolak, ahal duen neurrian, erraztasunak emango dizkie irakasleei kontzertuetan jo dezaten, ekintza sortzaileetan parte har dezaten eta beren espezialitateko ikastaro edo kongresuetara joan daitezen, zertarako eta egunean mantentzen daitezen euren gaitasun artistiko eta pedagogikoan, eta betiere, jarduera horrek ez badio kalterik eragiten zentroaren ohiko jarduera akademikoari.
- j) Aurreikusitako ordutegian edozein aldaketa egiteko edo baimenen bat eskatzeko Eskolako zuzendariarengana jo beharko da. Baimen eskaera bi egunetik gorakoa bada, ezinbestekoa izango da lizentzia enpresa esleipendunak ematea, betiere, Musika Eskolako zuzendariak hala proposatu eta txosten bat egin ondoren. Txosten horretan ziurtatu beharko du jarduera horrek ez diola kalterik eragingo zentroaren ohiko jarduera akademikoari.
- k) Ikasturtean zehar irakasleen artean lanposturen bat hutsik geratzen bada, enpresa esleipenduna arduratuko da kontratazioa egiteaz.

3.3.2.- IKASLEAK

Ikasleen arauak

- a) Matrikulazio-epea behar besteko aurrerapen eta publizitatearekin iragarriko da.
- b) Prozedura horren bitartez, Eskolak ikaslearen behin-behineko matrikulazioa gauzatuko du hurrengo ikasturterako: batetik, espezialitate bera egin nahi duten lehengo ikasleen matrikulazioa egingo du, bestetik espezialitatez aldatu nahi duten lehengo ikasleena eta, azkenik, ikasle berriena.
- c) Lehendik dauden ikasleek beti izango dute lehentasuna eta matrikulazioa Eskolak berak egingo du zuzenean. Horretarako, hurrengo ikasturteko ordutegia jarriko zaie, eta ikasle bakoitzak bere ikasgaiak eta ordutegia onartu beharko ditu.
- d) Ikasle berrien kasuan Onartuen Zerrenda zozketa publiko baten bidez erabakiko da, eta zozketa publiko horretan lortutako ordenaren arabera aukeratuko da ordutegia; matrikulazioa Eskolaren Administrazioan egingo da.
- e) Matrikulatu nahi duten pertsonak dagokion matrikulazio-orria beteko dute, eta bertan, ikasi nahi dituzten ikasgaiak zein diren adieraziko dute.
- f) Behar beste plaza egonez gero, eskaera guztiak onartuko dira.
- g) Zarautzen erroldatuta dauden pertsonak izango dute lehentasuna.
- h) Behar beste plaza egon ezean itxaron zerrenda bat osatuko da eskatutako ikasgaiaren, adinaren eta ezagutzen arabera. Beharrezkoa den kasuetan, eskatzaileei deituko zaie hautaketa-prozesu bat egiteko.
- i) Nahiz eta behar den beste plaza egon ez, salbuespen modura eta Kultura Batzordeak hala onartuta, Udalak eskubidea izango du zenbait ikasle onartzeko. Gainkostu hori Zarauzko Udalak ordainduko du.

Ikasleen eskubideak

- a) Bere kontzientzia-askatasuna errespetatua izatea, bai eta askatasun ideologiko, erlijioso, etiko eta morala ere.
- b) Bere osotasun fisiko eta duintasun morala errespetatuak izatea. Ikasleek ez dute tratu txar fisiko edo moralik jasoko.
- c) Eskolak erabakitzeo askatasuna bermatuko du; dena dela, Eskolak eskaintzen dituen aukerei buruzko informazioa emango die ikasleei. Eskolak behar bezala funtzionatzeko egokiena de erabakia hartzeko eskubidea izango du Zuzendaritzak.
- d) Ikasturte eta ziklo bakoitzerako ezarritako gutxieneko helburuak eta ebaluazio-irizpideak zein diren jakitea.
- e) Irizpide objektiboetan oinarrituta, eskolako errendimenduaren balorazioa jasotzea.
- f) Erreklamazioak egitea, eta ebaluazio partzialen edo azken ebaluazioen gaineko argibideak eskatzea, arautegi honetan ezarritakoaren arabera.
- g) Ezarritako eskola-orduak betetzea, eta hezkuntza-jardueran aurreikusitako prestakuntza lortzea.
- h) Kalitatezko hezkuntza jasotzea, eta eskolak horretarako aurreikusita duen materiala erabiltzea.

Ikasleen betebeharrak

- Hezkuntza komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna eta askatasun ideologiko, erlijioso, moral eta etikoak errespetatzea, eta baita beren duintasun morala, osotasun fisikoa eta intimitatea ere.
- Zuzendaritzaren xedapen eta aginduak betetzea, eta baita hezkuntza-arauetan eta barne arautegian ezarritakoa ere.
- Eskolako instalazioak, altzariak eta ekipamendua behar bezala erabili eta errespetatzea.
- Pertsona guztiak klaseetara joateko duten eskubidea errespetatzea.
- Matrikula eta kuoten ordainketa egunean edukitzea.
- Helbide aldaketen berri ematea.
- Eraikinari edo Eskolako materialari eragindako kalteak ordaintzea.
- Eskolara joatea, eta jarritako ordutegiak errespetatzea.
- Ikasteari behar besteko denbora eskaintzea, etxean ikastea eta irakasleek agindutako lanak egitea.

3.3.3.- IKASLEEN DIZIPLINA-ARAUBIDEA ETA ZIGOR-ARAUBIDEA

- a) Derrigorrez joan beharreko edozein kasetara, ebaluazio bakoitzean, 3 aldiz edo gehiagotan huts egiten dutenei baja eman ahalko zaie huts egindako espezialitatean, gaixotasun-arrazoirik edo justifikatutako arrazoirik ez badago.
- b) Ikasketekiko interesik eza edo aprobetxamendu falta handia erakusten dutenak Zentrotik bota ahalko dira, honako prozedurari jarraiki:
 - Zuzendariek edo irakasle tutoreak, irakasleen klaustroak txostena egin eta gero, ikasleari berari eta gurasoei, edo tutoreei, dei egingo die egoeraren berri emateko, eta euren argudio eta alegazioak entzuteko. Hiru hilabete pasatu eta gero hobekuntzarik ez badago, berriro ere deituko zaie interesdunei, esateko ikaslea berehala kanporatuko dutela Zentrotik edo hurrengo urtean ez dutela onartuko.

3.4.- GELAK ERABILITZEKO ARAUAK

- a) Eskolako gelak eta ekipamenduak batez ere klaseak emateko erabiliko dira.
- b) Espazio komunak jarduera jakinetarako erabiliko dira, momentu horretan dauden aukeren arabera, eta betiere, hezkuntza-behar guzti-guztiak betetzen saiatuz. Espazio komunak behar bezala erabiltzen direla kontrolatzeko, erregistro bat egongo da Administrazioan espazio horiek erabiltzeko eskaerak jasotzeko.
- c) Herritar guztiei zuzendutako kultura eta gizarte arloko ekintzak gauzatzeko erabili ahalgo dira Musika Eskolako gelak.
- d) Eskolako gelaren bat erabili nahi duten pertsona edo elkarteek idatzi bat aurkeztu beharko diote Eskolako Zuzendaritzari, jarduera, data, bere iraupena eta zenbat gela behar dituzten adieraziz.
- e) Gelak erabili ahal izateko Zuzendaritzaren baimena beharko da, eta sor daitezkeen gastuak ordaindu beharko dira: garbiketa, zainketa... Era berean, berme bat eskatu ahalgo da gerta litezkeen kalteen konponketa-gastuei aurre egiteko. Gero, berme hori itzuli egingo da, egon diren gastuak kenduta.

3.5.- URTEKO MEMORIA

Lortutako helburuak eta egindako ekintzak zehaztuko dira agiri honetan. Era berean, ikasleen emaitzak, gastuen eta funtzionamenduaren azterketa, burututako jarduerak eta hurrengo ikasturterako ateratako ondorioak ere jasoko dira bertan. Eskolaren Zuzendaritzak egingo du urteko txostena, eta Zarauzko Udalean dagokion Batzordeari jakinaraziko dio, horrek ere berretsi dezan.

4.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

“Imanol Urbietia” Musika Eskolak baliabide hauek izango ditu bere helburuak lortzeko:

- Helburu horretarako Udal Aurrekontuetan esleituta dagoen diru-kopurua.
- Erakundeetatik lortzen dituen diru-laguntzak.
- Era eta klase guztietako ekarpenak, erakunde publiko nahiz pribatuetatik jasotakoak, eta baita era guztietako pertsona juridiko edo fisikoak ere.
- Egindako jarduera zehaztetatik lortutako era guztietako diru-sarrerak.
- Dohaintzan edo legatu moduan ematen zaizkionak.
- “Imanol Urbietia” Musika Eskolako diru-sarrerari kontu hartuko zaie eta kontabilizatu egingo dira, eta Zarauzko Udaltzako onartu beharko dituzte kontuak.

6.- ZARAUTZ LUR SA. 2-2 AREAKO –OR ALDAPETA– PARTZELA ERAIKIGARRI BAKARRA BESTERENTZEKO BAIMEN ESKAERA

2009ko abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran Zarauzko Udalak erabaki zuen Zarautz Lur SA sozietateari doan lagatzea 2-2 arean -Aldapeta- dagoen udal titulartasuneko finkaren jabetza, bertan babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko.

Lagapen hori 2010eko maiatzaren 10ean formalizatu zen eskritura publikoan, eta jabetza erregistroan inskribatu zen. Inskripzio horretan, baldintza suntsiarazle bat eta erabilera debekua ezarri zen, karga erreal moduan.

2011ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onespena eman zion Aldapetako birpartzelazio proiektuari. Horren ondorioz, A-1 emaitzako partzela eraikigarri bakarrari jarri zitzaion baldintza suntsiarazlea eta erabilera debekuaren karga.

2014ko urriaren 20an egindako administrazio kontseiluan, Zarautz Lur SA sozietate publikoak honakoa erabaki zuen gehiengoz: Udalari baimena eskatzea baldintza suntsiarazlea eta erabilera debekuaren karga kentzeko eta A-1 partzela

besterentzeko. Eskaera justifikatzeko honako hauek aurkeztu zituzten: sozietateko lehendakariaren eta idazkariaren memoria arrazoitua, Zarautz Lur sozietateko arduradun juridikoaren txostena eta EKAIN abokatu bulegoaren txostena.

Udalerrri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak eskaera eztabaidatu zuen. Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak espedienteari buruzko txostena egin du.

Hirigintza arloko zinegotziak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Baimena ematea Zarautz Lur SA sozietateari, 2-2 areako -OR Aldapeta- birpartzelazio proiektuaren emaitzazko A-1 partzelari karga moduan jarritako baldintza suntsiarazlea eta erabilera debekua kentzeko, partzela besterendu ahal izateko.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea beharrezkoak izan daitezkeen dokumentu publiko nahiz administratiboak sinatzeko, akordioa gauzatze aldera.

7.- ZARAUSKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN 2014ko DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 8. artikuluan ezartzen du herri administrazioek DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKO batean zehaztu beharko dituztela hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantza bideak; betiere, aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatutako artikulua oinarritzkoa dela eta herri administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Bestalde, legezko mandatua betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude plan estrategikoa idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea diru-laguntzako gastu publikoan, herritarrek errazago izatea diru-laguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arrazoizko erabilera ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzei buruzko ebaluazioaz.

Hori guztia kontuan hartuta eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2014ko DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA onartzea.

ZARAZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2014

HITZAURREA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 8. artikuluan ezartzen du herri administrazioek DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKO batean zehaztu beharko dituztela hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantza bideak; betiere, aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatutako artikulua oinarritzkoa dela eta herri administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Beste alde batetik, esandako Lege horren hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du arauzko lege arauetan aurreikusitako herri politikei dagozkien Plan eta Egitarauak diru-laguntzen plan estrategikotzat hartuko direla.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, hamazazpigarren xedapen gehigarrian esaten du kontu-hartzailetzari dagokiola plan estrategikoen aplikaziotik ondorioztatutako emaitzak kontrolatzea eta ebaluatzea.

Azkenik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III kapituluko, 1. atalak, plan estrategikoen printzipioak, eremua, edukia, onartzeko-kompetentzia eta jarraipena arautzen ditu 10 artikuluan eta hurrengoetan; baita beren ez betetzeak izan ditzaketen ondorioak ere.

Arauzko eta legezko agindu hau bete ahal izateko Zarauzko Udalak diru-laguntzen plan estrategikoa onartzen du, eta ondorioz jarraian datozen artikulua.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Zarauzko Udalak 2014an diru-laguntzak ematerakoan ondorengo araudia beteko du: diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra, bere araudia, diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantza, ondorengo plan estrategikoa, sinatu ahal diren tokian tokiko hitzarmenak eta diru-laguntzen urteroko deialdietako oinarriak.

2. artikulua.

Diru-laguntzak emateko, aldeztu aurretik urte bakoitzeko aurrekontuetan banatu beharreko diru-kopuruak aurreikusita egotea eta deialdia, diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarriekin batera, onartzea eskatzen du.

3. artikulua.

Diru-laguntzak emango ditu baldin eta aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzen baditu; hortaz, onartzen dituen aurrekontu kopuruak eta diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri arauak uneoro egokituko zaizkie helburu horiei.

4. artikulua.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du esan nahi eskubideren bat sortzen dela onuradun izan daitezkeen alde, izan ere, horiek ezingo dute eskatu kalte-ordainik edo ordainik, Udalak Plana praktikan jartzen ez badu bere horretan.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenean emateko aukera alde batera utzi gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakiokoen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitatearen eta kalitatearen aldetik justifikatu beharko delarik.
- Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.
- Eta, berariaz, Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:
- Plana termino sozialetan justifikatzea.
- Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
- Finantza gaitasuna.
- Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

6. artikulua.

Diru-laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

Diru-laguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik, gastua onartu beharko da Zarauzko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

Diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

7. artikulua.

Plan honetan eta haren eranskinetan zerrendatuta datoz Zarauzko Udalak kudeatu beharreko diru-laguntzen lerro edo programa guztiak.

Diru-laguntza lerro edo programa bakoitzean hauek zehazten dira:

- Programaren deskribapena
- Gaia
- Lortu nahi diren helburuak
- Helburuak lortzeko epea
- Aurreikusitako kostuak
- Finantziazioa

8. artikulua.

Diru-laguntzak ematen dituzten udal departamentu beste eranskin ditu Plan honek.

II. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

9. artikulua.

Zarauzko Udalak diru-laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo entitate pribatuei, batetik, onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak egitea bultzatze aldera, eta bestetik, udal eskumeneko helburu publikoak lortzea sustatze aldera.

10. artikulua.

Zarauzko Udalak diru-laguntzak emango ditu urtero, hainbat udal diru-laguntza lerrotan, ondorengo eskumen arloetan: kultura; euskara zerbitzuak; gazteria; gizarte zerbitzuak; herrilan, azpiegitura eta zerbitzuak; hirigintza, plangintza eta ingurumena; kirolak; turismoa eta alkatetza.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

11. artikulua.

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru-laguntzak ematen dituzten departamentuek txosten arrazoitua eskatuko diete diru-laguntzak jasotzen dituztenei. Egindako ekintza kopurua eta diru-laguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira txosten horretan.

12. artikulua.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Diru-laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, erakunde laguntzailea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Diru-laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diru-laguntza ematen duen departamentuaren balorazioa, laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotitasunari buruz.

VI KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN KONTROLA

13. artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, alkateak txostena aurkeztu beharko du Ogasun Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru-laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak, eta, horrekin batera, hurrengo Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Aipatutako Plan Estrategikoaren aplikazioak eragindako emaitzen kontrola eta ebaluazioa udal kontu-hartzaileak egingo du.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: KULTURA

A) Programaren deskribapena: kultura proiektuak eta programak gauzatzeko diru-laguntzak.

Gaia: Zarauzko irabazi asmorik gabeko kultur erakundeei beraien kultur proiektuen eta urteko programen garapena finantzatzea.

Lortu nahi den helburua: Zarauzko irabazi asmorik gabeko kultur erakundeek beraien kultur proiektuak eta urteko programak garatzeko behar duten finantziarioa bermatzea.

Helburua lortzeko epea: 2014.

Aurreikusitako kostuak: 51.000 €.

Finantziarioa: Udalaren funts propioen bidez egingo da, Udalaren aurrekontuko laugarren kapituluaren zordunduta, baina laguntza ekonomikoa eskatu ahal izango zaie beste erakundeei, diru-laguntza ildo honekin zerikusia duten jarduerak egiteko argitaratzen dituen diru-laguntzetarako deialdien barruan.

B) Programaren deskribapena: senidetze-proiektuak eta programak gauzatzeko diru-laguntzak.

Gaia: Zarauzko irabazi asmorik gabeko erakundeei beraien senidetze-proiektuen eta programen garapena finantzatzea.

Lortu nahi den helburua: Zarauzko irabazi asmorik gabeko erakundeek beraien senidetze-proiektuak eta urteko programak garatzeko behar duten finantziazioa bermatzea.

Helburua lortzeko epea: 2014.

Aurreikusitako kostuak: 100 € + Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu horretarako emandako diru-laguntza.

Finantziazioa: Udalaren funts propioen bidez + Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu horretarako emandako diru-laguntzarekin egingo da, Udalaren aurrekontuko laugarren kapituluan zordunduta, baina laguntza ekonomikoa eskatu ahal izango zaie beste erakundeei, diru-laguntza ildo honekin zerikusia duten jarduerak egiteko argitaratzen dituen diru-laguntzetarako deialdien barruan.

C) Programaren deskribapena: artisautzaren sustapena.

Gaia: Artezaleak elkarteari bere urteko programaren garapena finantzatzea.

Lortu nahi den helburua: Artezaleak elkarteak bere urteko programa garatzeko behar duen finantziazioa bermatzea.

Helburua lortzeko epea: 2014.

Aurreikusitako kostuak: 62.620,00 €

Bai Legean, bai Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako diru-laguntzen modalitateen artetik, zuzeneko emakida bidezko prozedura bideratzea dagokio. Prozedura horren arabera, lehendabizi diru-laguntzak emateko baldintzak eta prozedurak arautzeko oinarriak onartu behar dira. Diru-laguntzak banaka emango dira, eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak jaso ahala eta aurrekontu baliabideen mugarekin.

Aurrekoa ikusita, eta 2014ko urriaren 21ean egindako bileran Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Zarauzko hirigunetik kanpo geratzen diren auzoetako bizilagunentzat eta ez gaitasuna duten pertsonentzat Taxibus zerbitzua bultzatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena.- 6.000 euroko gastu-konpromisoa baimentzea, diru-laguntza deialdiari aurre egiteko, ondoko partidaren kontura: 1 0406.471.511.00.02 2014

Hirugarrena.- Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA ABIAN JARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Oinarria. Diru-laguntzen xedea

1.1. Udalerri barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoetako garraio zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea.

Zerbitzua erabil ahal izango dute eremu hauetako batean erroldatuta dauden herritarrak: Zarauzko Udalerriko lurzorua ez urbanizagarria kalifikazioa duten eremuak, eta baita Zarauzko Hiria Antolatzeko Plan Orokorren eremu hauetan erroldatuta dauden herritarrak ere: 19 (Talaimendi), 24 (Errotaberri), 25 (Astierreka), 26 (Astazubi) eta 27 (Errotazar).

1.2. Autobus urbanoaren ibilbidearen eragin barnean dauden garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsona edo mugitzeko urritasuna duten pertsonen ere, laguntza hau eskainiko zaie, autobus zerbitzuak ezin duenean bete bere mugikortasun beharrak. Horretarako eskubidea izateko, garraio publikoak erabiltzeko zailtasunen baremoan gutxienez 7 puntu lortu izana egiaztatuko beharko da.

1.3. Diru-laguntza hau 07:30etatik 22:00tara egindako garraio zerbitzuetara mugatuko da.

2. Oinarria. Onuradunen betekizunak

Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 11. artikuluan xedatutakoaz gain (diru-laguntza baten onuradun izateko betekizun eta debeku orokorrak), laguntza hauen onuradun izango dira Zarauzko Udaletxeko taxi lizentzia duten pertsonak.

Ez gaitasuna duten pertsonentzat egokituta dauden ibilgailuen taxistak ere onuradun ahal izango dira, baldin eta Zarauzko Udalerriaren mugan barne ematen baldin badute zerbitzua, oinarri hauetan jasotako baldintzetan. Aukera hau, Zarauzko taxistek zerbitzu hori ematerik ez duten bitartean bakarrik bideratuko da.

3. Oinarria. Eskaerak nola eta noiz aurkeztu behar diren

3.1. Diru-laguntzaren eskaera Udaleko Sarreraren Erregistroan aurkeztu beharko da. Eskaerarekin batera, deialdian bertan zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio-datuak falta badira, akatsik egin bada edo osatu gabe badago, orduan, eskatzaileari eskatuko zaio dagoen akats hori 10 eguneko epean zuzentzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskatzaileak akatsa zuzentzen ez badu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, aipatu legeko 42.1 artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

4. Oinarria. Diru-laguntzak emateko prozedura

4.1. Diru-laguntzak zuzentzeko emakida bidezko prozedura bidez emango dira.

4.2. Udalak bonoak banatuko ditu, laguntza hau gauzatu ahal izateko.

5. Oinarria. Finantza-baliabideak

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzatarako baliabideak ondorengo aurrekontu-partidatik ordainduko dira, esleitutako diru-kopurua amaitu arte: 1 0406.471.511.00.02 2014

6. Oinarria. Diru-laguntzen zenbatekoa eta balorazio irizpideak

- Diru-laguntzak gauzatzeko bono sistema erabiliko da. Interesatuek Udaletxean eskaera egingo dute deialdian jasotzen den baldintzetan, eta 10 bidai egiteko tiketak dituen bono bat jasoko dute dohainik. Tiket bakoitzak bi zati izango ditu. Zerbitzuaren ondoren, taxistak zati bat jasoko du eta bidaiariak beste zatia gorde beharko du.

- Taxi zerbitzua egiterakoan, erabiltzaileak Udalak banatutako agiri bat emango dio gidariari eta egindako ibilbidea ordainduko du (=autobusaren tarifa arruntaren balioa)

- Herri barnean egindako taxi zerbitzua 10,00 euroko prezioan aurreikusi da. Horietatik 2,00 euro taxistak bere gain hartuko ditu.

- Udalak, zerbitzu bakoitzeko ondoren zehazten den kopurua ordainduko dio taxi zerbitzu emaileari, zerbitzua eman izanaren justifikazioa jasotzen duenean: Zerbitzu bakoitzarentzat aurreikusitako prezioari kenduko zaio erabiltzaileak ordaindutako bidaiaren prezioa (=autobusaren tarifa arrunta) eta taxistak beregain hartutako kopurua.

7. Bonoak eskuratzeko prozedura

- Bono eskatzailea autobus urbanoaren ibilbidearen eraginetik kanpo dagoen eremuan erroldatua egon beharko du (1.1 atalean zehaztutakoaren arabera).

- Ez gaitasuna duten edo mugikortasun urriko pertsonak, bonoak eskatu ahal izango dituzte, Zarautzen erroldatuak egon izanez gero eta 1.2 atalean adierazitako ez gaitasun maila egiaztatuz gero.

- Gehieneko bono kopuru eskaera 14koa izango da herritar bakoitzeko eta ezingo da eskaera gehiagorik egin horietako bakoitza eskatu ondoren aste bete barru.

8. Oinarria. Laguntzaren ebazpena

Laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak Alkateak hartuko ditu.

9. Oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Diru-laguntzaren bat jasotzen duen edozein onuradunek betebeharrak orokorrak (DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORREKO 20. artikulua) eta oinarri hauetan jasotakoak bete behar ditu .

10. Oinarria. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin jasotako guztiarekin diruz lagundutako jarduketaren kostua gairatzen ez bada, eta bildutako beste diru-laguntzen oinarri arautzaileek horri buruz agindu dezaketinari kalterik egin gabe.

11. Oinarria. Diru-laguntzak ordaintzea

11.1. Diru-laguntza, garraio zerbitzua eman duen pertsonak eskaera eta dokumentazio osagarria aurkezten dituenek ordainduko da.

11.2. Eskaerak hilabetean behin aurkeztuko ditu interesatuak.

12. Oinarria. Baldintzak ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea

Pertsona onuradunak oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo hein batean galdu duela adieraziko da, eta gainera jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko du, baita diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak ere. Diru-laguntzak emateko eskumena duen organoak hartuko du horri buruzko erabakia.

13. Oinarria. Araubide juridikoa

Diru-laguntza hauek oinarri arautzaile hauek arautuko dituzte: ZARAUZKO UDALEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO

ORDENANTZA OROKORRA (GAOn 2008ko uztailearen 22an argitaratu zena); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; eta horren garapeneko Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

9.- ASTIKO JOLASGUNEAN HERRI-LANAREN KONTZESIOA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

Kontratuaren gaia zera da: ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, helburu duen HERRI-LANAREN KONTZESIOKO KONTRATUA esleitzea, administrazio-klausulen agiriaren eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

Urteko kanonaren lizitazio-tipoa, gutxienez, 6.000 eurokoa izango (zerga guztiak kanpoan utzita).

Egingo diren obra eta instalazioak amortizatu ahal izateko eta, halaber, kontratuaren oreka ekonomiko eta finantzarioa ez galtzeko, Zarauzko Udalak honako ekarpen ekonomiko hauek egingo dizkio pertsona edo entitate kontzesiodunari. Horretarako, dagozkion konpromiso-kredituak onartu behar ditu:

-2014. urtean:	150.000 €.
-2015. urtean:	100.000 €.
-2016. urtean:	50.000 €.

Kontratuak hogeita bost (25) urteko iraupena izango du, gauzatzen denetik kontatzen hasita. Ez da luzatzeko aukerarik izango. Hala ere, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute, kontratua urtero luzatu ahal izango da; kasu horretan iraupen osoa, luzapenak eta guzti, gehienez ere 30 urtekoa izango da.

Ikusita bai administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak, bai eta Koordinazio informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ere, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, HELBURU DUEN HERRI-LANAREN KONTZESIOA kontratatzeke espedientea eta administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea.

Bigarrena.- Kontratuak hogeita bost (25) urteko iraupena izango du, gauzatzen denetik kontatzen hasita. Ez da luzatzeko aukerarik izango. Hala ere, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute, kontratua urtero luzatu ahal izango da; kasu horretan iraupen osoa, luzapenak eta guzti, gehienez ere 30 urtekoa izango da.

Hirugarrena.- Kontratua esleitzeko prozedura irekiaren deialdia egitea.

- Urteko kanonaren lizitazio-tipoa, gutxienez: 6.000,00 € (zerga guztiak kanpoan utzita).

Laugarrena.- 2014. urteari dagokion gastua onartzea, partida hauen kontura.

Gehienez ere	100.000,00 €	1 0401.600.439.00.04 2014, p.3931
Gehienez ere	50.000,00 €	1 0401.600.439.00.04 2014, p.3502

Bosgarrena.- Honako aurrekontu-kreditu hau onartzea, 2015. eta 2016. urteetan urte anitzeko gastuari aurre egiteko, hain zuzen ere, egingo diren obra eta instalazioak amortizatzen Udalak entitate kontzesiodunari egin behar dizkion ekarpen ekonomikoei erantzuteko eta kontratuaren oreka ekonomiko eta finantzarioa ez galtzeko:

- 2015. urtean	Konpromiso-kreditua	100.000,00 €
- 2016. urtean	Konpromiso-kreditua	50.000,00 €

Seigarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrari ematea ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, HELBURU DUEN HERRI-LANAREN KONTZESIOAREN kontratua esleitzeko eskuordetza, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

10.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA: MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da, eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal

Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetearren, egoki ikusten dute beste lankidetz hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetz hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

Hori guztia kontuan hartuta eta Jendarte Politikaren Batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Zarauzko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetz hitzarmena onartzea, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Bigarrena.- Alkate jaunari lankidetz hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO

Donostian, 2014ko

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, egintza honetarako Aldundiaren legezko ordezkari gisa ari dena, Diputatuen Kontseiluak 2014ko martxoaren 25eko bilera emaniko berariazko baimenarekin.

Eta bestetik,

JUAN LUIS ILLARRAMENDI ROTETA jauna Zarauzko Udalaren legezko ordezkari gisa ari dena, Udalbatzarrak 2014ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran emaniko berariazko baimenarekin.

AZALTZEN DUTE

I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

II.- Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

III. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

IV.- Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetearren, egoki ikusten dute beste lankidetz hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren

31 arte luzatu zen lankidetzaren hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

V.- Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

Hori guztia ondorengo klausulei jarraituz,

KLAUSULAK

LEHENENA.- Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta ZARAUZko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalean mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehaztea.

BIGARRENA.- Zerbitzu estaldura eta baimendutako ordu kopurua.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gehieneko ordu kopurua izango da Gizarte Politikako Departamentuak udal horretarako 2012an baimendutakoa, hau da, 28.851 ordu.

Hitzarmen honetako seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, baimendutako gehieneko ordu kopuruaren % 80 23.081 ordu dira.

HIRUGARRENA.- Tarifa/orduak gehienez

Gehienezko tarifa horiek urtero eguneratuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPIaren igoeraren arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko lehen hilabetearen barruan jakinaraziko dio Udalari eguneraketa horretatik ateratzen den tarifa. Hau da seigarren klausulak arautzen duen foru finantzaziorako oinarri den mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzuaren gehienezko tarifa orduko:

- a) Orduko tarifa astegunetan: 18,87 €
- b) Orduko tarifa igande eta jaiegunetan: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren prezio/ordua gehienezko tarifa baino txikiagoa balitz, foru finantzazioa kalkulatzeko, udalak onartutako prezio/orduaren zenbatekoa hartuko litzateke oinarri.

Bi kasuetan, ondorio ekonomikoak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

LAUGARRENA.- Zerbitzua arautzea.

Udalak etxeko laguntzaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak ezartzen duen eskumen banaketara moldatu beharko du; horrek ez du berekin ekarriko zerbitzuari buruzko apartatuek baieztatzen dituen eta baztertzen dituen jarduerak aldatzea, ezta onuradunak, eskuratzeko prozedurak eta erabiltzaileen partaidetza ekonomikoak ere.

BOSGARRENA.- Ordaintzeko prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du seigarren klausulan ezarritako zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak ezarrita ateratzen den zenbatekoa, Udalak zazpigarren klausulan adierazitako informazioa bidali eta hilabete epean.

SEIGARRENA.- Foru finantzaketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuari emango dion finantzaketa zehazteko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) Hiruhileko fakturazioa:

Mendekotasuna duten pertsonen emandako zerbitzu orduen kopurua eta hirugarren klausulan zehaztutako zerbitzuaren tarifa biderkatuta ateratzen den emaitza da.

b) Baterako ordainketa:

Mendekotasuna duten erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Foru finantzaketaren portzentajea:

Udalak baimendu diren orduen % 80 burutzen duen arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du:

1.- 3.000 biztanle baino gehiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 85.

2.- 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 90.

Klausula honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2012ko urtarrilaren 1eko errolda hartuko da erreferentzia gisa.

Udalak burututako orduak gainditzen badute baimendutako orduen % 80a, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 80 horretatik aurrerako orduak (baimendutako orduen % 100eko mugara arte) dagokien fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatua arteko aldearen % 100 ordainduko du.

ZAZPIGARRENA.- Informazio sistema.

Udalak Foru Aldundiari behar diren datu guztiak eman behar dizkio, gutxienez prezioa eta zerbitzuaren kostua, pertsonako zerbitzu orduak eta erabiltzaileen baterako ordainketa. Helburu hauekin:

1.- Zerbitzuaren likidazioa egin ahal izatea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea, mendekoei eta beste talde batzuei emandako arretari dagokion eta estali gabeko beharrei dagokienez.

3.- IMSERSOri pertsonen datuak erraztea, SISAADek (Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema) ezarritako baldintzei jarraikiz, araudi honek zehazten duen moduan:

- a) SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baita Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema (EAO 302, 2013/12/18, 1. sek., 100833 or.)
- b) 2013ko abenduaren 27ko 1051/2013 Foru Dekretua, mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzekoa (EAO 313, 2013/12/31, 1. sek., 107128 or.)

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Extranet SAD informatika tresna emango du.

Tresna hori gorabehera, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalaren esku bertsio hobe bat jartzen badu, udalak hori erabiliko du.

Informazioa bidaltzeko gehienezko epea hauek izango dira:

- a) Lehenengo hiruhilekoa: Apirilaren 30a
- b) Bigarren hiruhilekoa: Uztailaren 31
- c) Hirugarren hiruhilekoa: Urriaren 31
- d) Laugarren hiruhilekoa: urtarrilaren 31

ZORTZIGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko, aldeek adostu dute ordezkaritza parekideko batzorde bat eratzea.

BEDERATZIGARRENA.- Amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko ondorengo arrazoietakoren bat gertatu behar da:

- Bi aldeen artean ados jartzea.
- Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea, horrelakoetan, beste aldeari jakinarazi beharko dio hitzarmena amaitzeko aurreikusitako data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarrilaren 1etik duelarik; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatutzat joko da

beste urte natural bateko aldietarako, eta betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako.

Eta adierazitako guztia onartzen dutela frogatzeko, biek izenpetzen dute dokumentu hau, bi aletan eta ondorio bakarrekin, izenburuan adierazitako tokian eta egunean.

11.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) EAJ-PNV taldeak: Ahaldun nagusiaren bisita

Ondoren, EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

AHALDUN NAGUSIAREN BISITA

ZIOA

Joan den ostegunean, hilak 16, Martin Garitano Ahaldun Nagusia Zarautzen izan zen, bisita ofizialean. Orain arte, Ahaldun Nagusiak gure herrira bisita ofiziala egin duen bakoitzean, tradizioa izan da Foru Aldundiak Korporazioko kideei gonbidapena luzatzea Ahaldun Nagusiarekin egoteko, dela harrera ofizialean, dela bilera instituzionalean. Zarauzko Udalak eta Foru Aldundiak erakunde gisa eduki behar duten harreman instituzionalaren parte gisa egiten zen ekitaldia, naturaltasun eta logika osoz. Azkenengo honetan, ordea, Korporazioko kide garen hainbat zinegotzik ezin izan genion harrera ofizialik egin Ahaldun Nagusiari. Ekitaldirik ez zen antolatu eta herritarren ordezkari gisa baztertu egin zitzaigun, Korporazioa denok osatzen dugun arren. Inolako gonbidapen ofizialik ez zitzaigun luzatu.

Ondorioz, ezin izan genituen Ahaldun Nagusiarekin herritarren kezka, arazoak eta herriaren erronkak partekatu. Bere alderdikideen iritzia baino ez zituen entzun.

Gertatutakoak Foru Aldundiak Zarauzko Udalari eta bere buruari zor dion errespetu instituzionalarekin erabat apurtzen duela uste dugu. Hori dela-eta, mozioa aurkezten dugu.

MOZIOA

Zarauzko Udalak salatu egin nahi du Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, hilaren 16an egindako bisita ofizialean, Zarauzko Korporazioari gonbidapenik luzatu ez izana, eta dei egiten die hurrengo bisita ofizialean errespetu eta logika instituzionalak agintzen duten ekitaldia antolatzeke, dela harrera ofizial bezala, dela bilera instituzional bezala, orain arte normaltasun osoz egin izan den moduan, zinegotzi guztiok herritarren kezka eta arazoak eta herriaren erronkak berarekin partekatu ahal izan ditzagun.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

b) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Konstituzio Auzitegiak Kataluniako kontsulta behin-behinekoz bertan behera uztek hartutako erabakiari buruz

Hurrena, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentuak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaiten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

ERABAKIA

- 1.- Zarauzko Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Zarauzko Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.
- 2.- Zarauzko Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekursoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.
- 3.- Zarauzko Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.
- 4.- Zarauzko Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitatari bidaliko dio.

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

c) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Esukal hedabideei babes

Halaber, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Honela dio:

EUSKAL HEDABIDEEI BABESA

2003. urtean Auzitegi Nazionaleko Del Olmo epailearen aginduz Egunkaria kazeta itxi eta bertako zuzendaritza atxilotu zuten. Egunkari ororen itxiera adierazpen askatasunaren aurkako eraso larria da. Aurretiaz Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltzarekin gertatu bezala, ahotsik gabe utzi nahi izan zituzten langile, bazkide eta irakurle asko, eta horiekin, herri baten ahotsa.

Hau gutxi balitz, operazio hartan auzipetutako lagunek, haien artean Iñaki Urija zarauztarrak, atxiloaldian tortura larriak jasan zituzten. Epaitu gabe prebentiboki espetxeratu zuten zarauztarra hainbat urtez. Kartzelatik libre, kalean zelarik ere, hamaika urtez luzatu zuten auzibidea.

Azken asteotan jaso dugu kasua behin betiko artxibatu denaren berria. Berri pozgarria da inondik inora, baina berandu dator. Berandu dator egunkari bat itxi zutelako, langileak kaleratu behar izan zituztelako, hainbat lagun, horien artean Iñaki Urija, atxilotu eta torturatu zituztelako, hauek arrazoirik gabe espetxean eduki eta hamaika urteren buruan ezagutu behar izan dutelako justizia, halakorik egin dela esan badaiteke.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi absolutioarekin Egunkaria osteko Berria egunkariari itxieraren Damoclesen ezpata kendu zaionik. Absolutioaren berria izan eta bi astera, Eusko Jaurlaritzak Berriari eta Hamaika Telebistari eman beharreko dirulaguntza nabarmen jaitsi duenaren berri izan dugu. Egunkaria epaileen eskariz itxi bezain deitoragarria iruditzen zaigu beste erakunde batzuetatik hedabide hauek ekonomikoki itozteko egiten ari diren ahalegina.

Berria egunkaria euskarazko komunikabideen artean erreferentzia nagusienetako bat da. Estrategikoa da euskararen adierazpen idatziari dagokionean eta, herri honetan bertan kazeta honetan lan egiten duten langile asko daude.

Amaitzeko, aipatu nahi dugu, proportzioan Berriak Euskal Herrian harpide gehien dituen herria dela Zarautz.

HONAKOA ESKATZEN DUGU

1. Iñaki Uriari eta Egunkaria auzian auzipetutako guztiei gure elkartasuna adierazten diegu. 11 urteko ibilbide honetan egunkariaren itxiera, atxiloketa, torturak, kartzelaldia pairatu behar izan dituzte, batere justiziarik gabe.
2. Egunkaria auziaren absolutioa berandu dator. Baina egunkari horrek suposatu zuenagatik, gure eskerrona azaldu nahi diegu Egunkarian lanean aritu ziren zarauztar guztiei. Egunero euskaraz bizi daitekeenaren adibidea izan zarete.

3. Egunkaria auziaren absoluzioaren berri jakin eta Berria egunkariari eta Hamaika Telebistari dirulaguntza murrizteagatik gure kexua helarazi nahi diogu Eusko Jaurlaritzari.
4. 2014ko iraileko udalbatzarrean eskualdeko euskarazko hedabideei dirulaguntza handitzea onartu genuen bezala, oraingoan, Eusko Jaurlaritzari Berriari eta Hamaika Telebistari eman beharreko dirulaguntza gutxienez iazko kopuruetara itzul dezala eskatzen diogu.
5. Euskalgintzan duen eraginagatik eta sektore horretako erreferentzia nagusiena izaki, bi proiektuen biziraupena baldintza duinetan berma dezala eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari.
6. Zarauzko Udalak #BabestuBerria ekimenaren baitan Berriari eta Hamaika Telebistari 5.000na euroko publizitate laguntza ematea ebazten du.

Udalbatzarrak ERABAKI DU ondoren transkribatutako proposamena onartzea, bozketaren berdinketan alkate jaunak emandako botoaren aukera nagusitu izanaren ondorioz.

d) PSE-EE taldeak: pobrezia energetikoaren aurka

Hurrena, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri du idazkariak. Hona hemen mozioa:

POBREZIA ENERGETIKOAREN AURKAKO ETA KONTSUMITZAILE AHULENAK BABESTEARI BURUZKO MOZIOA

ZARAUZKO UDALEKO Udal Talde Sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du Udalbatzaren aurrean:

ZIOEN AZALPENA

Pobrezia energetikoa gaur egun bizi dugun krisi sozial eta ekonomiko larriaren ondorio bat besterik ez da.

Zazpi milioi espainiarrek izugarriko zailtasunak dituzte hilaren bukaeran argiaren ordainagiria ordaintzeko, eta lehentasunak jarri edo aukeratu egin behar izaten dute bizitza duinarekin oso lotuta dauden oinarrizko gauzetatik zein ordain ditzaketen eta zein ez.

2014ko hasieran Euskadin ere 90.000 pertsonak zailtasunak zituzten energia horniduraren gastuak ordaintzeko.

Egoera larri horren aurrean hainbat jarrera daude: arazoari bizkarra ematea, irtenbide koiunturalak planteatzea (udalek eta beste erakunde batzuek egin duten bezala), edo egiturazko neurriak hartzea egoera dramatiko horiek konpontzeko.

Kontsumitzaile ahulenak babestu behar ditu legediak. Horrek esan nahi du energia hornidura oinarritzko giza eskubide modura hartu behar dela, kontsumitzaile ahulenek euren diru-sarreraren (eta ez merkatuaren) araberako tarifa sozial bat edukiko dutela, eta bermatuta edukiko dutela neguan ez zaiela hornidura etengo.

Horiek horrela, ondorengo mozioa aurkezten dugu:

1. Udalbatzak Foru aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die estrategia bat martxan jar dezatela, erakunde sozialekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin batera, pobrezia energetikoa errotik kentzeko.
2. Udalbatzak Foru aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die konpromiso bat har dezatela pobrezia energetikoaren aurka, eta larrialdiko funts bat sortu dadila hari aurre egiteko.
3. Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala pobrezia energetikoari buruz Eusko Legebiltzarrak otsailaren 27an hartutako erabakia.
4. Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Diputatuen Kongresuan berehala aurkez dezala Kontsumitzaile ahulenak babesteko eta pobrezia energetikoaren aurkako legea, bertan onar dadin.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, aurreko mozioa onartzea.

e) PSE-EE taldeak: Emakumearen Institutuaren defentsan eta berdintasunerako politikak berreskuratzearen alde

Azkenik, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri du idazkariak. Hona hemen testua:

EMAKUMEAREN ERAKUNDEAREN DEFENTSAN ETA BERDINTASUN POLITIKAK BERRESKURATZEAREN ALDE.

ZIOEN AZALPENA

Emakumearen Erakundea 1983an sortu zen erakunde autonomo gisa Administrazio Zentralean. Garai hartan diktadura batetik atera berriak ginen. Diktaduran emakumeak mendeko pertsonak ziren, bai legez bai ekonomikoki, eta etxeaz eta hurrez arduratzea zen haien zeregin bakarra.

Emakumearen Erakundea sortzeak, ordea, bide berri baten hasiera ekarri zuen. Bide hori emakumeen eta gizonen berdintasunerantz zihoan eta, aldi berean, Europara hurbiltzen gintuen. Europan erakunde espezializatuek egiten zituzten berdintasun politikak, eta gobernuak eta eragile sozialak inplikatzeko zituzten.

Erakundea, hasiera-hasieratik, "Emakume guztion etxe" bihurtu zen, eta ordudanik lanean aritu da talde feministekin eta emakume taldeekin bat eginda. Emakume horiek gogor borrokatu ziren Erakundea sortzeko, eta haiek izan dira

emakume guztion bizitza nabarmen hobetzeko egin beharreko lege aldaketen protagonista.

Emakumearen Erakundeak oinarrizko funtzio hauek izan ditu, martxan jarri zenetik:

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko baldintzak bultzatu.
- Emakumeek bizitza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalean parte har dezaten bultzatu.
- Ministerioek eta bereziki emakumearekin lotutako gainerako erakundeek garatu beharreko lanak koordinatu.

Zailtasun handienak zituzten emakumeei laguntza emateko zerbitzuak sortzea izan da beste funtzio garrantzitsu bat (batez ere lankidetzeta-hitzarmenen bidez), bai eta erkidego eta herrietan berdintasun politikak garatzea ere.

Gainera, emakumeen bizitzarako hain garrantzitsuak diren zenbait legeren aplikazioan lagundu du, informazioa eman du eta horien segimendua egin du (Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala, Berdintasun Legea, Mendekotasun Legea edo, nola ez, Osasun Sexualaren eta Ugalketaren eta Haurdunaldia borondatez Etetearen Legea).

Joan den irailaren 16an Estatuko Aldizkari Ofizialak dekretatu zuen Emakumearen Erakundearen izena aldatu egiten zela eta hemendik aurrera izen hau edukiko duela: "Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Erakundea". Gainera, aurrez aipatu diren funtzioak desegiten ditu, eta ahalmena kentzen zaio gainerako erakunde publikoen aurrean jarduteko.

Horri guztiari beste ardura politiko bat ere gehitzen zaio: jaiotza, sexua, arraza edo etnia, erlijio edo ideologia, orientazio edo identitate sexuala, adina, ezintasuna edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta gertatzen den diskriminazioaren aurka egitea.

Gobernuak erabaki du emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren arloan zegoen erakunde espezializatu bakarra bukatzea. Erabaki horrekin, Gobernuak beste behin ere emakumeak eta euren beharrak murriztu eta zokoratu egiten ditu.

Horiek horrela, ZARAUZKO Udaleko Talde Sozialistak ondorengo **MOZIOA** aurkezten du:

- Gobernuari eskatzea Emakumearen Erakundea mantentzea, gizonen eta emakumeen aukera berdintasunean espezializatutako erakunde autonomo gisa.
- Gobernuari eskatzea erakunde horren helburuak alda ditzala eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean lehen zeukan jarduteko ahalmena itzul diezaiola, besteak beste helburu hauek lortzeko: gainerako ministerio eta erakunde publikoekin berdintasun politikak koordinatzeko eta gizonen eta emakumeen aukera berdintasunari buruzko legediaren segimendua egiteko.
- Gobernuari eskatzea igo dezala Emakumearen Erakundearen aurrekontuko diru-hornidura, erabateko lehentasuna duten honako gai hauetaz arduratzen

jarrai dezan: genero indarkeria errotik kentzea, enplegua, hezkuntza ez sexista, esplotazio sexualerako pertsonen salerosketa, etab.

- Gobernuari eskatzea Emakumearen Erakundeak jarrai dezala erkidegoekin eta toki-erakundeekin batera lan egiten.
- Gobernuari eskatzea Tratu Berdintasunaren eta Diskriminazio Ezaren Lege Integrala izapidetu dezala, batetik, legezko aitortzaz gain berdintasunaren balioan ere sakontzeko eta, bestetik, tratu berdintasuna bermatu eta diskriminazioaren aurkako borrokan jarraitzeko.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, aurreko mozioa onartzea.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamabiak hogeita bost gutxi direnean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.